

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXXV Zenbakia.

1996


Jorrailla-Ekainilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Erdiaroko euskal izenen idazkera.— Latiegi tar Bixente	1
On Jaime Kerexetari erantzuna.— Latiegi tar Bixente	9
Gu ba goaz-Ni baita.— Zatarain dar A.	13
Edertilanak eta euskara.— Latxaga	18
Imanol Mitxelena, euskararen bultzagillea Hendaia'n.— Latxaga	23
Azkoitiko gabon sariak.— Anastasio Albisu	26
Euskerazaintzan.— Joxemari Murua	29
Euskerazaintza aldizkaria.— Lanak eta Idazleak.— Zubikarai tar A.	31
Euskera zoragarria. Ume txikien berbakera.— Martiartu tar I.	40
Euskeraren batasuna. Jakingarriak.— Lekuona, On Manuel	49
Euskaltzaindia'ri biotz biotzez.— Zatarain dar A.	61
Euskaltzaindia'ri "batua"ri buruz.— Zatarain dar A.	63
Oñatibia'tar Manu'k jasotako esaldi jatorrak (Kanpo eta barruko azaletan)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO



Euskaldunontzat
jakingarri ugariz
betetako liburua.


EUSKAL AZTARNAK
Cro-Magnon'etik Erroma'ra

Egilea:
Anastasio Arrinda Albisu
(Arrinda tar Anes)
EUSKERAZAINTZAKOIA

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA
I.S.B.N.: 1132-1318
Legerako Gordetza: BI-1928-87
Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao



EUSKAL IZENEN IDAZKERA BALPUESTA'KO GOTZAIEN IDAZKERA

Larruki au ez da gotzai batena, Errege batena baizik. Bañan, alaz ere, gotzai-idazkien sail ontan bear du aurkeztua, eta ikertua. Balpuesta'ko gotzaien idazki guztiei asiera ematen diena bait da.

Errege ori, II Alfontso dugu; Asturietako Erregea; Edestiak "Castos". ots. "Ezkondu Cobeia", "Ezkongea", izen-ipiñi diona. Zentzu or; bait du, edeskietan, berez "garbia" esan nai duan laterazko "castus" itzak. Orixe ainzuzen, ezkongea, adierazi naiez esan oi zaio "Erregin Neskutsa", "The Virgin Queen", esamesen runrunera ain "neska utsa" izan ez ornen zan Inglannderriko I Elisabete'ri ere.

Gure erriak, ez dakit, Elisabete Erregiñari zer izen emango lioken. Bañan bai zer esanen zion, seguruaski, egiaz oitura garbiko gizona izan ornen zan Alfontso Erregeari: "Alpontxo Mutilzarra", gexur utsezko begirunkereri edo errespetukeritan ibiltzeke. Izan ere, Errege ura, ez bait zitzaion oso-osoan arrotza.

Erdi-Euskalduna erdi-Bisigota zan bā II Alfontso Asturietako Erregea. Erdi-Bisigota, FRUELA aitaren aldetik; Erdi-Euskalduna, berriz, MUÑA amaren aldetik.

Mintzatua naizela uste dut Muña ta Fruela'ren arteko edeski polit artaz: 757'an jazten du I Fruela Bisigotak Asturietako buruntza. Berealaxe asten zaigu euskaldunen aurka borrokan. Izan ere Errege Bisigotiar bat Euskaldunei gudarik

" Ezezaguna egingo zitzaion bearbada norbaiteri "edeskietan" itza; "edestietan" esaten bait da maizenik. Bañan "edeskietan" obeto esana dago. "Edesti" xeetasun-gaindiko itza da: Abstraktoa. Orregaitik, "Edestia", bat bakarra da, gogapen bat besterik ez dalako, gogapeu utsa, mamitasunik gabea. Ez daiteke ikusia izan: ezta'e entzuna, edo ukitua edo usaitua ala dastatua. Xeetasun ororen gaindik dagoalako, gertakizun guztiak cifra "edesti". Zintzoago esanik, gertakizun danak dira "edestiaren" barrutiko "zerbait". "Zerbait" oietako bakoitzari esaten zaio "edestiak"; gertakizun bakoitza bait cla "edeski" bat. Eraberean, Olerkiak, asko. Edestia, bat bakarra; edeskiak, asko. "KI" atzizkiak, adimenaren munduko "gogapen utsa" besterik ez dana, mundu gorpuzkoi ontako "gauza" biurtzen bait du.

egiteke ez bait litzake Bisigotiarren Errege izango. Ez Errege ta ez beste ezer. Deus ez!

Euskaldunen aurka ibilli zitzaigu I Alfontso, Fruela orren aita ere. Alfontso orren leenagoko biek ez zuten ortarako astirik izan: Fabila'k, erregetza artu ta laister, eizean ari zala, otso batek il zualako; eta, Pelayo'k, buruntza buru-gaiñean gordetzea naiko eginkizun bazualako; naiz bera, esan oĵ dan bezala, erregejatorrikoa izan, erregeen jatorriko buruzagi geiagorik bai bait zuan an bere inguruan, arabitarren erasotik igesi Asturietara bilduak. Bisigotiarren buruzagiak oro, berriz, -errege ankaz-gora-jaurtitzaille eta erregeei-lepoa-moztutzaille yayoak ĵaki! Pelayo beraren aurreko Erregeak, bai, Errodrigo'k, setatsu jarraitu zuan bere aurreragokoan jardunkera. Ala, euskaldunen aurka Iruña borrokatzen ari zala arrapatu zuan musulmanen ugaldeak.

Orrela, sendo jarraitzen zuan Euskaldunak ankapetu nai izateko Bisigotiarren oitura zaarrak: Errodrigo - I Alfontso - F Fruela - III Alfontso..., Euskaldunek, Basconĵ'ko dukaterriaren kerizpean aurrena eta gero Naparroa'ko Erreiñuaren babe-sean alkaturik indar artu zuten arte.

Orra bá or I Fruela.

Errege Bisigotiarrek lenen bearkizuna izan zuten Euskaldunak menderatu bearrak ziralako ori bete nairik, orra orI Fruela Autrigoi en lurretara sartuta.

Euskaldunak oartzeke sartu dalarik, bildu du katigu-sail aski ugarĵ bat. Emakumezkoak geienak. Gizonezkoak, Errege atzerritar lapurrari erantzun egokia ematea gertutzeko, mendira alde-egiñak bait dira. Emakumezko baĵtuen artean, gazte bat, Muña, neska ederra ta polita benetan. Neskaren edertasunak bereganatu du Errege basatiaren biotza. "Neretzat nai dut nik neska ori", oi u dagi zaldigaiñetik, neskaz erabat maitemindurik.

"Irrintzi bat entzun da goiko tontorrean". ²⁸

XX mendean Frankotarrek bezala, VIII'ean bazekiten Bisigotiarrek irrintzi arek zer esan nai zuan; eta Asturietarako bidea artu zuten iraduz.

Bere alboan eraman zuan bidaldi guztian Erregeak bere maite kuttuna. Eta berarekin ezkondu zan Obeto'ra, ots, Obiedo'ra iritxi ziranean.

Ikus or, Erregin biurturik, katigu artua izan zalako, berez mirabe "serva" izan bear zuan neskatil "baskoia". Errege eta Erregin oien maitasunaren zitu izan zan II Alfontso Erregea "Mutizarra". ²⁹

Bere amaren lurretan ari izan zitzaigun beraz II Alfontso Balpuesta'ko elizba-

⁸ Gudatekoan Eusko-Gudarien ereserki biurtu zan abesti orren itzak, il-berria dan Bizkai'ko gudari ospetsu batenak dirala, idatzi du egun auetako batean, DEIA egunerokoan, nik eza-gutzen ez dutan batek. Ez da egia esan digun ori. Bertso oiek "Uxola"renak ditugu. Badira urte batzuk beste ezezagun batek DEIA'n bertan bertso beroien egilletzat Monzon aurkeztu zigula. Nik banekian Uxola'renak zirala, baiñan ziurtasun osoaren billa, Uxola berari idatzi nion; eta, gero, ZER aldizkarian argitaratu nuan Uxola'ren erantzuna, bertso oiek noiz, nola, eta zergaitik sortu zituan esanez. Bakoitzari berea. Ori bait da gizabidea.

²⁹ "Baskoia" esaten dio Muña'ri III Alfontso'ren Kronoka'k naiz neskatil ura seguruaski Autrigoitarra izan: "Muniam quendam adolescentulam ex Vasconum praeda": "Katigu artutako Bas-koi en arteko neskatilla; Muña zeritzana". "Sensu stricto", "itzaren zentzu motzean", gutxi-gora-bera gaurr-egungo Naparrei esan oi zitzaien "Baskoiak". Baiñan badirudi izen orri Eus-kaldun guztiei emateko oitura oso goiz sortu zala. Akitani'ren erdian, Naparroa'tik arras urruti,

rrutia. Elizbarruti ori... "sortzen?", "sendotzen?". iNoren aurka sendotzen? "Arabitarren aurka? Bere larrukian aipatzen dizkigun babes-lege arrigarrien eta emaitza oparoen bidez, Eliz berri ura Arabitarren aurka sendotzen? Baiña, ez Erregeak, ez Erregearen doai guztien artzaille izan zan Jon Gotzaiak ez dute beren idazkietan Arabitarrik aipatzen. Ez da idazti oietan Arabitarren bildurrik batere agertzen. Eta Erregeak bere larrukian damaizkin lege eta zigor-meatxuak ez dijoaz musulmanen aurka, Balpuesta'ko eliz-aberastasunen ebasle izan daitezkean Aundjki kristauen aurka baizik.

Elizbarruti berriaren sorkuntzari dagokionez, berriz, nere ustez, Erregea ta Gotzaia biak ditugu, biak batera gajñera, euskalerriko elizbarruti berri aren sortzailleak.

Ortaz, ordea, beste batean mintzatuko gera. Ema'eiogun orain begiraldi bat, I Alfontso Erregearen larrukian agertzen zaizkigun erri-izenen zerrendari.

ORRUNDIA	SOMBRANA	VALDEGOBIA
SUVAÑARIA	CANCELLATAM	VALLEIO
LOSA CIELLA	CHARCESEDO	PONTACER
PENNAM	VILLAM LUMNOS	BUSTO
PENNILLA	RODIL	FRESNO
RIANTA	OVETO	OROÑ
	CASTELLI	

ORRUÑDIA.- Ablatibu-eran datorkigu izen ori II Alfontso'ren larrukian: "Dono etiam huic praefatae Ecclesiae proprios terminos de Orrundia": "Nere neronen ("propios") alorrek ere badamazkiot aitatuko Eliz orri". Ez-aztugarria, benetan, esakizun ori. Erregea, gotzaigo berria sortzerakoan bere amaren lurretan ari zala adierazten bait digu; eta bere amarengandik ondarez, ots, erentziz, artutako ontasanak zirala gotzaigo ari ematen zizkionak: "propios": "bere-bereak": amagandik artuak.

Beraz, alde ortatik so-egin ezker, II Alfontso, Euskalerriko zoko Autrigoi artan Asturietako Errege Bisigota bezala ez baiña, ama Euskaldun Autrigoi baten seme Autrigoi Euskaldun bat bezala jardun zitzaigula esateko, naiko eskubide badugula dirudi.

'Ez ote zegoan bá gure sarkaldeko Gobiaran polit ori, une artan, Asturietako Errege Bisigoten mendean?...

Geroago, baiñan benetan, saiatuko gera galde kezkararitxo orri kixazko erantzun bat billatzen. Itzuli gaitezen orain Orrundia izenera.

Itz, ori, "A" artikulua kenduz gero, ORRUÑDI agertuko zaigu. Baiñan, artikulua ta guzti, Araba'n bertan, antziña Bardulitarrena izandako lurrean baiña Baskoiekingo mugaren alboan, Trebiño'ko Albaina'n aizuzen, badugu larrukikoaren izen ber-bereko txoko bat: ORRUNDIA.

Ñaiz, "O" nekerik txikieneko legearen araura "U" biurtzen dan bezala, "U"

Garona Ibaietik aski bertan, izan zan Condom izeneko erri bat, gero gotzai-uri izatera iritxi zitzaiguna. Bai al dakizu nola esaten zioten Erromatarrek ere V mendea Galietara sartu bezain laister asi ziran Akitaniar guztiei "Vascones" edo "Wascones" esaten. Lenago ere, II mendean, "Vasco" da, geiagoko zeaztasunik gabe, Silio Itoliko'k Euskaldunetaz ari danean erabiltzen duan itza.

alderantziz oso gutxitan "O" biurtu, noizbeinka gertatzen zaigu gure Euskeran azkeneko biurketa ori ere.

Ala, adibidez, IX mendean bertan, gure ORDUÑA'ri, "URDUNIA" esaten dio Asturietako III Alfontso'k bere "Kronika" ospetsuan: "Alaba namque Bizcai, Alaone et URDUNIA a suis incolis reperiuntur semper esse possessae": "Gauza jakiña da, Araba bezala Bizkai, Alaone, eta URDUÑA, beti bertako semeen eskuetan egon dirala". (Urduña idatzi dut, "NI" izkiak orduan "Ñ" agoskatzen ziralako).

Or dakusute Bizkaitarrok zuen lurralde bikaiñaren izena idatzirik ematen dau lenen dokumentua. Oartu zarate noski, IX mendean, Kronika zaar orrek ez dautsola BIZKAIA esaten, BIZKAI baizik; izan ere, ori bait da, nere uste apalez, bere egiazko izen jatorra: BIZKAI. Diptongo-eran agoskatua? Galde orrek erantzun euskaldunik ez dau. Agoskera, esaldiaren barruan artzen daben egitekotik datorkie bá gure itz guztiei. Eta, baita, Euskerak ain berea daun "azentu" edo atsketa melodikoaren araura esaldi osoaren barruan aurkitzen diran tokietatik ere.

"U" izkia, gure Euskeran, "O" biurtuzale ez dugula esan dut, biurketa ori nekerik txikieneko legearen aurka doalako. Bañan "O" bai, "O" "U" biurtuzale aundia dalarik, iñork ezin ukatu izango digu, III Alfontso'ren "URDUNIA" ura, ango euskaldun Autrigoiek "O" "U" biurtuz Urduña agoskatzen zuten ORDUNIA bat ederki izan zitekeala: ORDUÑA, "NI" oiek Ñ" esaten ziralako Lege beraren araura jatorrizko "O" "U" biurturik larrukiko Orrundia Orrondia ba'litz, badira sei, "ORRO" aurrizkia daramaten toki-izenak Araba'n bertan: Orrobi, Orroiturri, Orronbaltzo, Orrones, Orrostaui, Orrostuia. Ta baita abizen-sail bat ere, Kerexeta'ren Iztegian ikusi dezakezunez: Orro, Orru, Orrondo, Orrue, Orroz, Orruña, Orroma...

—Aizak, Bixente: "orro" edo "orru" "ez zaiok bá basapiztien abotsari esaten? Or dek, mutil, "Orrundia"ren etimologi ziburra: Orru-Aun-Di-A, Orru-Un-Dia, Orru "El Lugar de lo Grandes Rugidos" gazteleraz, toki artan basapizti asko zala adierazteko. 'Ez al zaik orrela iruditzen? — Ez bá, adiskide. Ez zaidak orrela iduritzen; oso-osoa beste erabateko bait dek euskal-toponimia.

—Nik ere badiat beste etimologi bat, Bixente. Orrundia ura Urrundia izango bagenukek, Urrundia, "Urrun-Di-A" ori, "El Conjunto de Lejanías" izango ueke. Oker al nabillek? — Bai adiskide. Oker abil i ere. Lendabizi, gure izketan euskaldunok "O" izkia "U" biurtzen ez diagulako; eta, bigarren, ire etimologi orrek ere euskal itxurik ez dikelako.

—Zer ote dek bá, ORRUNDIA'ren etimologia? — E'tzekiat, Nik, bildur aundiz, eta batera eskiertasunik gabe, jolasketa-eran, Orrundia ura ARRUNDIA izan daitekeala esango nitek. Eta ortik asiko nindukek etimologi baten billa. Ori ontzat artzekotan URRUNDI, Arrundi'diren biurketa izanik, "Lugar de Barrancos" irtengo litzaigukek.

Eragozpen bat bakarria diat ori egiazkotzat eman aal izateko: "O" oso errez "A" aldatzen zaigukela (artoburu, artaburu; garodi, garadi; astoburu, astaburu, eta abar). E'tzekiatela, ordea, "A" orren errez "O" biurtzen zaiguken.

Itzaren erdian UN bat agertzen zaiguk: "Orr-Un-Di-A", baiñan orrek ez zidak kezkarik ematen, "UN" atzizki toki-adierazle ezagun bait duk. Txit ugaria Napparroa'ko toponimian: Irurtzun, Arizkun, Uzukurun, Uz kudun..., ata euskerazko toponimiak maiz ematen bait zizkiguk bi atzizki dituzten izenak. "A" "O" biurtzen ote dan jakitea dek nere kezka. Norbaitek ori gertatzen deken itz batzuk ezagutuko ba'lizkik, eskertuko niokek, itz oiek eskuratuko ba'lizkidakek.

Dana dala, ziur negok, izen ori, ORRUNDIA, ezpairik gabe Euskalduna dala, baiñan ezin esango diat eskierki bere etimologiarik".

Badira larrukiaren izen-zerrendan beste era bateko izenak: itz arruntak, gauzen izenak leku bereizien izenak baiño geiago: "palabras comunes" gazteleraz.

Ala, adibidez, VALLEIO ("vallejo", "vallecillo"), PENNAM ("peña"), PENNIELLA ("peñita"), FRESNO (zugaitz-izena), CASTELLI ("del castillo"), LOSA CIELLA ("losita") CANCELATAM ("enverjado").

Itz oietako batzuk, edo danak, larruki ontan badaiteke toki-izenak izatea. Gaur bertan ere badira bá orrelako toki-izenak eta abizenak. Era ortako abizenak, berriz, toki-izen izanak ditugu abizen izan aurretik.

VALLEIO. Gaur, Vallejo, abizena dugu. Aski oiturazkoa arabarren artean. Badirudi gure larrukiko au euskal-itz baten laterapena dala. Ez da beintzat toki bereizi baten izena, edozein arantxo edo ibartxorentzat balio dezakeana baizik, toki-izen bereizia bere atzetik bait datorkio: "Subtus carrera usque ad Valleio de fonte Charsecedo": "Gurdibidearen azpitik Karsezedo'ko iturriaren ibartxoaraiño"

Bada VALLEJO ori euskal-abizen bat izan daitekeala dionik, RALLES beintzat Euskalduna lez dakar bere iztegian Jaime Kerexeta'k. eta Lopez Mendizabal tolosarrak, abizen ori — "brezo" esan nai omen duan "aillar", "aillas" "ailles"tik ornen dator.

Batere atsegin ez zaidan etimologia. Itz oiek ez bait dira gaiñera itz euskaldunak, "ailles" izan ezik. Baiñan "ailles", Baztan'en, gaizki arrotutako ogiari esaten zaio: "ogi aillesa".

Alare, Vallejo'ren euskalduntasunaren alde egon daitezke, Ballestegi, Balles-teginea (biak abizen tolosarrak), Ballearena, Ballena, Ballibar, eta oien antzeko euskal-izen eta abizenak. (Ikus Kerexeta'ren Abizen eta Armarrri Euskaldunen Iztegia).

PENNA, PENNILLA: (agozkeraz Peña, Peñilla). Larruki onek dioskunaz landa ere badugu izen oien ezaguerarik ugari. Aurrenekoarena batez ere.

PENNILLA, Gobiaran'go Bobeda'n, toki menditsu baten izena zan 1745'an. "PENILLAS", Gobiaran'dik ez urruti, Barrio'n, beti ere Autrigoien lurtean, 1715'an soro batena. PENILLA ALTA, 1793'an, Gobiaran eta Kuartango arteko muga-toki batena.

Askoz leenago ordea, 1352'an, Araba'ren beste muturrean, Roitegi eta Arana'ko Sanbizente'ren arteko muga-tokiari, PEÑIZ esaten zitzaion.

Erdiaroko Peñiz orrek euskal-itxura aundia damaio PEÑA abizenari.

Eta ez da, ortan, bakarra. Itxura bera bait damaiote, Araba'n bertan PEÑA-GOBIA (Gobiarean'go Tobillas'en, 1849'an), PEÑALANA (Bernedo'n Erdiaroko 1292'an), PEÑALATS (Labastida'n, 1849'an), eta gaur oraindik bizirik dirauten PEÑARAN (Loza), PEÑARIKEA (Gamarra), PEÑASOA, (Agurain), eta oien antzeko toki-izen eta abizen euskaldunek.

Zergaitik luzatu naizen izen onen zeastasunak agertzen? PEÑA, Euskalerrian ain ugari dakusgun abizena, gaztelerazko "peña"rekin zer ikusirik éz duan euskal-abizena dala beti uste izan dutalako.

Ontan ordea ez dator nerekin bat Jaime Kerexeta. Entzun egiozute: "PEÑA": probablemente es el castellano "peña", a no ser que sea una variante de Beina, Beña, Baña". 30

Azkue aundiaren iztegiak, auxe diosku: "BEINA, (bizcaino común), hierba de las orillas de los arroyos y que comen los barbos". Ez dabil beraz oker On Jaime Kerexetatarra. "Beina">"beña">"peña", etimologigintzarako bidean errez onartu daitezkean aldakuntzak bait ditugu, "IN" "Ñ" errez biurtzen dan bezala, "B" eta "P" ere alkarren artean errez aldatzen diran izkiak izanik: "barkatu", "parcatu"; "pake", "bake", "berbiztu", "berpiztu..."

Zail gertatzen zait ordea, lats-bazterretako belar baten izena abizen baten oiñarri izan daitekeala baieztatzea.

Bai. Egia da altza ere ibai-ertzetako landarea dugula, baiñan alatagutziz abizen eta toki-izen ugari sortzeko gai izan zaigula. Altza, ordea, zugaitza da. Bere nortasuna badu. Beina, berriz, gieinik urpekoa dan batere nortasunik gabeko belartto izkutu bat besterik ez.

Alatagutziz, nik ez nieke aurkarik egingo, nere ustez beti ere Euskalduna dan PEÑA abizena "BEINA" belarraren izenetik datorrela uste dezaketenei.

Penna'ri, "Pennam rubiam" esaten dio larrukiak: "De foz de Busto usque ad Pennam rubiam; de Pennam rubiam usque ad S. Christophorum": "Busto'ko arrupe-bidetik Aitz orailleraiño; Aitz orailletik, Kristobal Doneraiño". "Rubio", "rubia", euskeraz, "oraila" esaten dugu, zoritxarrez "rubioa" esaten ez dan tokietan.

Gogora datorkit, Lizardi'ren jaiotzatiko eungarren urtea ospatzen ari geran ontan, zeñen txukun erabilli zuan itz ori, legorte aundi bat adierazteko, eguzkirik-eza era ontan agertu zuanean:

"Anitz egunez ez gera alaitu lurtarrok:
Yaun orail eder legorteen aita
katez loturik egona baita
odei bustien sabelean".

"Orail", lateraz, "rubeus" da, emakeran "rubea". Larrukiak bi aldiz "rubia" dakar. Geroagoko aldakuntza seguruaski; larruki auek mendeak-zear sarri izan bait dira lardaskatuak.

Esan dedanez, "Aitz" bat ez ez "Aitztto" bat ere aipatzen digu larruki onek. Ori esan nai bait du PENNILLA itzak: "...de Rodil usque ad Pennilla": "Rodil'tik Arkaitz Txikiraiño". Geroxeago, berriz, PINIELLA esaten dio Pennilla orri: "de Piniella lombo lombo usque ad summum Pozos": "Aitz Txikitik maldaz-malda goiko Pozos'etaraño".

Bi gauza oarrerazi nai nizkieke irakurleei bi itz oiei-buruz:

— Aurrenekoa: Gure "LL"ren soiñua emateko "ILL" erabilli zitala lumalariak edo, berdin dana, "IELL", "E" ori "1" agoskatzen zutelako. Laister asiko dira lumalari zar aiek "LL"ren soiñu ori bera emateko "LH" erabiltzen.

Bigarrena: Bi "lombo lombo" oiek, larruki au idatzi zuan lumalariaren euskal-

³⁰ Jaime de Kerexeta: *"Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco"*. Bilbao, 1974. "Euskera-zaintza"ko idazlan auek idazterakoan oso-oso maiz erabilli oi dedan liburu bikaiña,

duntasuna, oiuka lez ari zaizkigula adierazten: Laterazko itzak erabilliz, esakizun ortan, euskeraz mintzatu bait zitzaigun. Lateraz mintzatzekotan, "de lombo in lombum" bearko zuan idatzi: "maldatik maldara" edo "per ipsum lombum": "maldaz-malda". Ori adierazteko itza bikoiztatzeko utsa, "lombo lombo", "maldaz malda" (laburki ta polito larrukiak "malda-malda"), euskal-morfologiari dagokion era bereizi bat da! Zearo latiñaren era guztietatik ezberdiña!

FRESNO, Araba'n toki askoren izena dala diosku Lz. de Guereñu'k: "barranco, peña, labrantio, término, etc.". LOS FRESNOS, berriz, Laminoria'ko alor bat omen da, ta Gobiaran'go Billanueba'n lats edo errekatxo batena.

Larrukiko, Fresno'k, ordea, toki-izena dirudi. Eta, orra or, arazo pittin bat nola agertzen zaigun: "FRESNO" ez da latera. Ez erdiaroko, ez Erromateko latera. Lateraz FRAXINUS esaten zaio "fresno"ri. FRESNO erromantzea da: Gaztela'ko erromantzea. IX mendean, ordea, erromantzerik ez zan. Beraz, itz ori XII mendean gero sartu zan. Ainzuzen XIII'ean agertzen ornen da aurreneko aldiz, esku-zidatzi batean³¹. XIII mendean gero sartu zitzaigun, beraz, itz ori gure larrukira.

Itzak sartu, itzak kendu, eta itzak aldatu, milla deabrukeri egin bait dira mendez-mende gure dokumentu zarrekin.

"Fresno'ren ordez, "zer idatzi ote zuan IX mendearen lenen urteetako lumalari zaar arek? LIZARRA?

Gereñu'ko Loperena'k aipatu digun Laminoria'ko "Los FRESNOS" ori beintzat LIZARRETA, LIZARRAGA, LIZARDI, edo orrelako zerbait izanen zan; Laminoria'n ia atzo-atzo arte iraun bait du Euskerak bizirik.

Izen euskaldunekin egindako deabrukeriak aipatu ditut. Ezin izan du Laminoria'k ere deabrukeri oietatik aldegin. Bere izena, —nolako izen polita!,— zakarki LA MINORÍA idatzirik sarritan ikusiko bait duzu. Benetan polita Araba'ko Entzia-Mendiko arantxo orren izena: "Oria" erreka ba'da, LAMIN-ORIA "Rio de Ninfas" izango bait litzake!

LOSA CIELLA: Orrela dakusgu larrukian idatzirik: "Superadiitio in loco quem vocitant Losa Ciella Formal cun suis terminis": "Lengoetaz gaiñera ("superadiitio"), badamaiot baitare Losa Ciella esan oi dioten lekuan Formal bere lurrekin". "Losa"k eta "Ciella"k biak batean bear lukete idatzirik egon, eta euskeraz, "losatxo" izango lirake.

"Losa, gaur, Gobiaran'ekin muga egiñez, Burgos'ena dan Aran Autrigoitar baten izena da. Euskal-toponimi ugarikoa. Erdiaroan, Lausa idatzirik ikusiko duzu beti. "O"ren otsa idazteko "AU" erabiltzea, anitz oiturazkoa bait zuten lumalari zar aiek.

Ainzuzen, beiñ-edo-beiñ izan ezik, gure Gobiaran'en izena, arrigarriki, Val de Gaubea edo Val de Gaubia ez baiña VAL DE GOBEA edo VAL DE GOBIA idatzi ziguten beti. Eta ori izan du arrezkeri bere izena, Euskaltzaindia, arrazoibide guztiak urratuz, parragarriki, GAUBEA izendatzera etorri zaion arte.

LOSA edo LOZA'ri dagokionez, (Biak itz bat bera bait dira), zalantzarik gabe diot gaztelerazko "losa" eta "loza"rekin deus ikusirik ez duan izen eta abizen euskaldun baten era bi dirala. Beraien euskalduntasunari indar ematera datoz, bieta-

³¹ Martín Alonso: "Enciclopedia del Idioma". Madrid 1958.

ko bat embortzat a^rturik, Euskerak sortu dituan izenak: Losuaga, Losue, Losarte, Lussarre, Lozagirre, Luzarraga, Lazada, Lozaga, Lozkoin, Losaeta, Luzain, Lazaran..., eta ainbat eta ainbat geiago.

Nere ustez izen oien danen itz-ama LOZA, ots, LOTZA izango litzake. Loza, Losa, eta zer esanik ez Lusa eta Luza, bere aldakuntzak dirala iduritzen bait zait.

Ez dakit, ordea, LOTZA'ren etimologia zer izan daitekean.

Agian... agian... agian...LOI-TZA?

CA.NCELLA TAM: Ez da itz adi-erreza. Emen "esiduna", "esitua", esan nai du. Ortik ote datar gaur Gobiaren'en ugari dan BARRED() abizena? Edota "Barre" eta "Do" atzizkiz osotua ote dugu, "Remedo" "Sagrado" "Kaizedo" ta orrelakoen antzera? Ikusi dugu nola beste izen bat ere larruki ontan agertu zaigun: PINILLA. Pinilla ori "piñuttiki" zala uste ote izan ote du norbaitek? eta ortik sortu ote da Gobiaan'en ain sarritan agertzen zaigun PINEDO Abizena? Naparroa'ko Erronkari'n bezala Araba'ko Gobiaren'en ere berez sortzen da piñua. Oparo gaiñera. Erronkari'n, euskera bertan itzegin dan bitartean LER esan oi zaio piñuari eta LERDI piñediari. Nola esaten ote zioten beren piñuari Autrigoitarren lurreko Gobiarendarrek? Eta Araba'ko abizen arrigarrietaz ari galararik, esan cE. edan CALLEJA ere abizen arabarra dala; Kantauri mendi-lerroaren goi-maldan. Errioxa arabarrean dagoan Kripan izen duan errikoa. Orkoa zan jatorriz, liburutxu txiki-txikietan ume-ipuiak argitaratzen eta txakur aundi baten truke saltzen, bere burua España osoan ain ospetsu egin zuan Calleja jauna ere. Agoz-agozko esatera billakatu zan garai batean Ondarrabi'tik Kadiz'era, "tiene más cuento que Calleja" esatea, norbait ez-fidagarria zala adierazteko.

Ta, Larrukiko Cancellata'ra itzuliz, "zillegi ote zait Cancellata ari "esparru" biur-tzea?

"De alia parte uske ad Cancellata'n; de Cancellata usque ad fontem Sonbrana" --- diosku larrukiak: "Best'aldetik Cancellata'raiño; Cancellata'tik Sombrana'ko iturriraiño".

**T

—Uste al dek ik, Bixente, VALLEJO ta PEÑA ta BARREDO ta CANCELATA ta AGUILAR eta ARROYO eta CALLEJA eta orrelako abizen oiek..., benetan uste al dek euskaldun izan daitezkeanik?

—Orra bá, adiskide. Gure Akesolo'tar Lino Euskerazaintzako Lendakari izanak bere bigarren abizena, OLIVARES, aldaketaz-aldaketa Olivares biurtutako euskal-abizen bat zala, dokumentuen bidez ziur egiztatu zuanez gero, ni ez nauk ausartzen Euskalerrian ugari agertzen zaizkiguken OLIVARES'en antzeko abizen oiei... euskalduntasunik ukatzera.

Baiñan luze noa-ta, utz dezadan gaiñerako guztia clatorren egunerako.

Latiegi'tar Bixente

ON JAIME KEREXETA'REN GUTUN BATI ERANTZUNA (Izen baten etimologia dala-ta)

Aspaldi zorretan nago On Jaime'rekin, joandako Abenduan idatzi bait zidan eskutitz au:

"Latiegi adiskide: Jakingura aundia dot GAZETA itzari buruz. Gazeta Elorrio'ko auzuna bat da. Eta izen orren esanaia jakin gura neuke. Mitxelena'k, Araba'ko erritxoa oiñarriztat artuta, "gatz"etik datorrela diño ("Apellidos Vascos, n.º 268). Erritxo orretan gatz-tokirik egon ete-da iñoiz? Elorrio'ko auzuna au erri orretako jatorrikoren batek ekarri eban, bearbada. Baiña ona etorri ziranak, "gatz"etik sortu ezkeru, arabar areik eta emengo auzunakoak, Gatzeta oguziko eben beti, nere Ustez, eta ez Gazeta. Orixe diñot nere "Diccionario OHV"-n (ikus daikezu an). Ondotxo dakit erdaldunak "t" ori ez ebena dokumentuetan idazten, baña euskaldunak "tz" esaten eben -eta esaten dabe -agoz. Zein da zure iritzia?".

Orra be, Jaime. Ez da gauza erreza gai orri-buruz erantzun eskier bat ematea. Alatagutziz, au duzu eskatzen didazun iritzi ori:

Mitxelena'k oso etimologi errezera jo du: errezegira. Baiñan, nere ustez, oker ibilli da. Oker ibilli da Euskaltzaindia ere, Araba'ko erritxoari izen ori bera eman bait dio: Gatzeta. Baiñan Euskaltzaindia oker ibiltzea ez da arritzeko gauza, parragarrikeri mardulak egin bait ditu gure erri euskaldunak "bir-bataiatzerakoan".

Nik banekian, XI mendean Kukulla'ko burni-barren larrukian, 1025'ean, GAZAHETA agertzen dala errixka orren izena, asko eta sarritan erabillia bait dut burni-barren larrukia. "H" ori, seguruaski "G" irakurria bear dalako, GAZA-GETA, izan zitekean antziña artan erriotxoarer izena. Baita GAZARETA (GAZA-ARETA) ere, kornodiña bezala erabiltzen bait zuten lumalari zar aiek "H" a. Alare, ez zan beintzat GAZAJETA izango bertako biztanleek aman zezaieketena.

"Gazeta"ren itxurakoak izan ditu beti, erritxo orrek bere izenak: Gazeta (1257), Garaeta (1294), Gazeta (1462)...

Gazeta, Gazteiz'tik sortalderuntz, Araba'ko zelaiaren tokirik politenetako batean dago.

Donosti'ra goazela, Elorriaga dugu aurreneko erria, gero Arkaute, gero Illarata, eta erri ontatik kilometro batera, egoalderuntz, 34 biztanle besterik ez dituan Gazeta.

Gutxi ba'dira bertako biztanleak, gutxiago dira oraindik erri orrek izan dezazkean gatz-obi eta gatz-iturriak. Bat ere ez!!!

Ezaguna dut erri ori. Ezagunak ditut bere inguruak. An ez da sekulan gatzik izan. Gauza bera esan didate, gai auetan jakintsuak diran Jaun batzuk ere: an ez dala beñere gatzik izan.

Ona, Madoz'ek zer dion: "Situado en llano y contiguo a un montecillo, poblado de robles de gran magnitud. Tiene varias fuentes. El terreno es arcilloso y en parte arenisco". Gatzaren aipurik ere ez.

Araba'n bada Gaz-e-ta'ren enbor bera duan beste errixka bat: Gaz-eo.

Bada Araba'n Gazeo ta Gazeta'ren itxura bereko toki-izenik ugari, Bai, gutxienez, eunen bat, "S" eta "I" izkiak "Z"aren eta "E"ren aldakuntzak dirala kontuan artzen ba'dugu. (Ikus, G. Lopez de Guereñu'ren "Toponimia Alvesa" liburu arras ezaguna). Baiñan, gaur esku-artean darabilkigun arazorako, izen guzti oietan garrantzitsuenak, GAZETA eta GAZEEO ber-berak, eta, izen oien tinkotasuna eta iraunkortasuna adierazten digutelako, beraiengandik sortu diranak:

Gazeo'tik:

GAZEOBASALDE, 1778'garren urtean Langarika'n, Agurain-alboan.

GAZEOBIDEA, 1716'ean Ezkerrekotxa'n, Agurain-alboan.

GAZEOKASTAYA, 1753'an Apellaniz'en, Araba'tik Lizarra'ko bidean.

GAZEOGAINA, 1778'an, Alaitza'n, Entzi-Mendi'ren maldan.

GAZEOGOYEN, 1578'an Langarika eta Txintxetru artean, Arabar-zelaiean.

GAZEOGOYENA, 1778'an Alaitza'n.

GAZEOGOIYENGOILARRA, 1678'an, mugarria Alaitza'n.

GAZENGOYENA, 1708, Agurain'en.

GAZEGOYENA, 1778'an Langarika'n.

GAZETXOBARREN, Aguraingo Anaidia'ren lurretan XIII mendean ezabatutako erritxo zar baten izena.

GAZEUKOERROTALDEA, 1710'ean Eredi'n, Agurain-alboan.

Gazeta'tik: legorrez GAZETABASO'Gazeta'n bertan.

GAZETABITARTEA, 1708, Añua'n, Araba'ko zelaiean.

GAZETAKOERROTAALDEA, 1738'an Gazeta'n bertan.

* * *

"Eta" toki ta ugaritasun-adierazlea eta "O" toki-adierazlea, itxura bereko atzizkiak dira biak. "GAZ", "GAZA", "GAZE" aurrizkia zer izan daitekean jakitean dago kokka. Ez, beintzat, "gatza", ondo ezagutzen ditudan "Gazeo'n eta bere inguruetan ez bait da sekula santan gatzik sortu. Alderantziz, ango urak erateko oso atsegiñak dirala diosku, Madoz'ek.

Gauza bera esan daiteke Araba'n aurrizki ori bera daramaten eunenbat izan aiei-buruz ere: Ez dala lurralde aietan sekulan gatzik izan.

Gaiñera, "GAZA" k ez du "GATZA" rekin senidetasunik. Alderantziz, "GAZA" k bizkaieraz-"GEZA" k gipuzkeraz- "gatzik gabea" esan nai du, "MOTELA", gazteleraz "SOSO".

Beraz, bide ortatik joko ba'genu, Gazeta eta Gazeo, "lugares con sal", "lugares salados" ez baiña "lugares sin sal", "lugares sosos" dirala esan bear-ko genuke.

Araba'n... -bizkaieraz itzegiten bait zan!

Baiñan askoz ziurragoa dala iruditzen zait, apalki, Gazeta'ren etimologia oso-osoan ezezaguna dugula aitortzea. 1025'az gero la beti berdiña agertzen zaigu Gazeta'ren izena. Ez digute, beraz, dokumentu oiek argi geiegirik ematen. 1025'aren aurreko dokumentu batean erritxo orre in izena agertuko ba'litzaigu...!

* *

"Koartango ala Kuartango? Koartango, bear du, Jaime, "O" "U" izkie buruz, esan izan dedana gogoratuz: "O", nekerik txikienaren legearen eragiñez, "U" oso errez biurtzen dan bezala, ez dala "U" ain errez "O" biurtzen.

* * *

Gero, nere adiskide aundia dan On Jaime'k goxoki-goxoki, argitaratzera dijoan Eusko Abizen eta Armarriei buruzko liburua etimologille sartu nai ninduke.

Barkatu, Jaime, baiñan atzipeturik zabilta. Ni ez naiz, gai oietan, zuk uste bezain jakintsua. Asmo oneko mutiko bat besterik ez naiz.

Gaiñera ez dut astirik ezertarako. "Euskalerraren Ebangelizaketa" (I mendetik V'enaren azkenera ade joango dana) argitaratzeko azken-lanak egiten ari nai. Bereala "Euskalerriko Kristautasunaren Sendoketa" (VI mendetik XII'era),

idazten asi nai dut, Eliz Orokorraren Edestia bukatzeko bi liburu peitzen zaizkit: "Erdiario Garaia", "BEE-Erdiarioa".

Ondotxo dakizu zuk orrelako idazkiek bear duten denbora. Oraintxe argiratzera noan au, 4 urte kosta zait egunero lanean 9 ordutik 9 t'erdira sartuz. Ipiñi itzezu guzti orren gainean, aldizkari eta izparringietako idazlan auk. Etimologi-gintza ere lan neketsua ta luzea gertatzen zait, itz bakoitzaren sustrai guztiak aztertu nai izaten bait ditut.

Jaime: Otsail onen 11 'ean, Lurdes'ko Andramariren egunean bete ditut 77 urte. Eriotzaren aurka borrokan ari bearko dut, nere asmo guzti oiek aurrera atera nai ba'ditut. Sinista eidazu, Jaime: iñon denbora salduko ba'litz, pozik erosiko nuke nik.


"Euskerazaintza"-n zure idazlana irakurteko gurari biziz nago". Bai? Jaime? Eskerrikasko!

*


Oso dotore dago Oyhamburu'ri eman diozun erantzuna. Orrelako arazoeztaz zergaitik ez duzu "Euskerazaintza"n zerbait argitaratzen?

Geiegi luzatu naiz-ta, barkatu eidazu adiskide lez.

LATIEGI'TAR BIXENTE



GACETA
GAZETA.



-GU BAGOAZ- NI BAITA

Unamuno'k aspaldi esana' alegia "el vascuence pierde cada día en extensión territorial y en vigor gramatical" zorigaitzez orduan baiño ere egiago da oraiñ. Len gatzelanaiasartzeko bakarr;k erabiltzen ziranak' eskola eta mezubi-deak' oraiñ euskera lardaskatzeko sekula izan dan indarrik aundienak biurtu zaizkigu. Idazleok gero eta okerrago idazten degu, eta mintzalariek darabilkien izkuntzak gero eta euskeraren itxura gutxiago du. Baserrietan jaiotakoeri eta baserrietan jaiotakoen aurreri ere kezka bera entzuten zaie: —"Dalako telebista orrekin' laister guztiok euskeraz gaizki egingo degu; orrenbeste euskera txarr entzunez' oitzen ari gera".

Bi aldiz papera artu eta entzundakoak idazten ari naiz. Lenengoan (88.2.13), amarrenbat minutu; bigarrenean (88.2.14) bost minutu; ona orduan jasotako ale batzu, (aldrebeskeri bat idatzi orduko beste bi entzuten nituan, eta danak eziñ idatzirik sorta ttiki bat besterik enuan egin).

— Gure alderditik agur! / leneng bider / ordu desberdiñetatik eta toki desberdiñetat;k / ezta penaltirik egon / lau lagunek ezin dutela arriaren kontra joan / gauza asko esan genezake / ni najz infraktorea / sei metrotako datoak / konpañia bakoitza nola osatua dagoen / ez degu ikusten paperr (sic) ori oso betegarrria / "Bella Easo"ko banda / azkeneko adaptazioak (adaptar euskeraz egokitu esan oi degu) / trasladoa / akordioa rratifikatu / pentsatu dut orretan (he pensado en eso) // Artzalluz eta X. jauna Ajuria'enean ikusi dira Lendakariarekin / dena-den (dana dala esan oi degu; beste orrek arako kantu zaarra gogoratzen dit: "Atea jotzen eztegu lanik / dana-dan dago zabala" / etxe ontako jende noblea / Jaunak bedeinka dezala") / lareun milla lagun bilduko da gaur auteskundetarako / penaltia pitatu / Atzo España'ko erregea eta Inglatera'ko printzesa egon ziren / ez nuke nahi ezer gabe joan zaitezten (zuek ezer gabe joaterik enuke nai).

Ona oraiñ ikastoletan euskeraz ari izandako aurreri, nere billoberì' amaika biderr entzundakoa: —Ni banoa. —Ni baita. Euskera liburuetan ikasi dueneri orrelako esaerak agian ez tie belarrrian miñ emango, baiña bederatzì urte bete arte erderaz ikasten asi etzanari, eta geroztik etxean eta kanpoan beti euskeraz ag;ten jarraitu duanari' orrelako izkerak nazka eta negarr egiteko gogoa ematen dio. Liburuetan ikasitako euskera aipatu det, eta izan ere adirazkizun orri buruz izen aundiko liburuetan ediren ditudanak arrigarriak dira. Ona batzu:

Azkue, DVEF: BAITA: 1.º (c) también, aussi. (Contr. de bai-ta)= Encabeza la frase de que forma parte y exige que la palabra a que ella se refiere le siga el verdadero "también" que es BERE o ERE. "Baita San Karlos Milango obispo jaunak bere: "también San Carlos, obispo de Millán". (Olget. 173-13). En rigor baita... bere, baita... ere no es más que una trasposición: ta San Karlos Milango obispo jaunak ere bai. -2.º (BNc, L,R-bid), porque lo es= Se compone de BAIT (V. bait) -3.º (...) Orra garbi, zeatz eta argi esana; eta 1905 urtean irarria eta argitaratua. Baiña... Quandoque bonus dormitat Homerus. Ona Azkue berberak "Morfología vasca" liburuan diona: Con mucha frecuencia y en todas partes se oyen baita también y ezta tampoco. Por baita decían viejos bizkainos baeta (Micol. 28-12). No hay por qué repetir la mutación que sufre ta de copulativa a causal (6702). Baita y ezta van generalmente acompañadas de la concesiva ere, bere (...). Este (baita) de ahora es el adverbio bai seguido de la conjunción copulativa. La locución baita gu ere es en rigor bai ta gu ere "sí y nosotros también" que a voluntad del que habla se dice también bai gu ere sin la ta o como dice Lardizabal (Test. 515-3). Arrantzara noa - gu ere bai zurekin "voy a pescar -también nosotros con vos". Hay también, aunque en menor número, gentes que dicen bai eta y ez eta en vez de baita y ezta. Ezkerala gauza... ezeta Jesus bat esateko ere que no somos aptos... ni siquiera para decir un Jesús (Ag. ercus. 18-20).

Orra benetako también euskeraz ERE zala esan idatzi ondoren' ogei urteren buruan ERE concesiva dala eta benetako también baita dala argi eta garbi esan. Ori ikusirik onela esaten da: Banoa. -Ni ere bai. Bukatu det. -Nik ere bai. Besterik ez tet egingo. - Nik ere ez. Orrelakoetan eztago eta edo ta sartu bearrik. Au bestela erabiltzen da: Pello joan da, eta Patxi ere bai. Iñoren buruan sartu elitekena' -nerean beintzat ez- eta ori bai itzakerin baturik idazteko ze arrazoi aipatu ditekera da.

Beste baita bat bada baturik idatzi bear genukena, eta Mitxelena'ren iriztaren kontra eta etimologokeri utsez bi zatitan idazten duena: bait da alegia. bait ori uste utsa dala ikusteko' aski da ika mintzatzen: Itxaron bearko dek, goizegi etorri bai aiz; aulki bat ekarriko diat/diñat orrela zutik gaizki baiago; nekaturik egongo aiz, atzo lan aundia egin bai van/baiunan; Badakit an izan aizela, neronek ikusi bai aut.

Bait idaztearen alde **baitzera** eta **baikera** bezelakoak aipatu oi dira, baiña aski da **emon deutzu, ekarri ditutzu, etorri jaku** eta **jín zauku** gogoratzea zu'ren jatorria **tz**, eta gu'rena **ku** dala ikusteko; itzaren asieran **tz** eta **k, z** eta **g** biurtzen dira. Gogoratu **tzintzarri** eta **ceresia, (kereixa)** itzak **zintzarri** eta **gerezi** biurtu dirala, beste asko eta askoren artean bi bakarrik aipatzea aski dala uste baitut.

Leengora itzuli'z arritzekoa da gaztelaniz también bai eta tanmal ez esatea, tampoco bai eta tanmucho ez entzutea, eta prantzesez aussi (alid sic) bai eta aunon ez, non plus bai eta non moins ez esatea. Bestelako egokitasuna da euskerarena: ere bai eta ere ez.

Azkenik eskari bat. Gutxienez iñork eztezala baita eta ezta idatzi, bai

eta eta **ez eta** idatzi bearrean. Eta askoz obe **eta... ere bai, eta... ere ez** idatziko balude. Eta gauzak zearo ongi egitekotan'onela idatzi bearke genuke: "Emen da, goizean etorri baita. "Joan bear zuala, baiña **ezta** joan" "**Eztet**" erosi, dirurik **ezpainuan**". "**Eztet** egiñ, ongi egiten **ezpaitakit**". Orrela idatziko bagenu' Aita Villasante'k itzen ebakitze makurrak salatu bearrik eluke edungo.

Mitxelena'k "ereduzko euskeraz" idatzia dala esan zigun liburu batean onako auek aurkitu ditut:

(Orduen liturgia) 729, 1013: Ez bait duzu nere biotza Leizera egotziko, **ezta** zure zintzoa ustelak artzen utziko.

710. Ez eraman nere anima gaizkilleekin, **ezta** nere bizia odol-zaleekin.

740. Ez dute Jauna goersten il direnak, **ezta** ixil-tokira jaisten direnak.

1005. Ez zaitu ikaratuko gauezko izuak, ezta egunezko geziaren ziztuak, ez illunpetan dabillen izurriak, ezta eguerdiko ondamen galgarriak.

175. Krixto, Jainkoak autatua, kaiñabera pizatua austen ez duzuna, ezta ketan dagoen metxa itzali ere; (...)

1261. ... ez irabazi zikiñari begira ere, utsean baizik; ezta menpekoen jauntzo bezela, artaldearen eredu izanez baizik.

978. Ez bedi gurean arresi-austerik, ez atzerrieratzerik, ezta gure enparantzean aienerik.

803. Ez zuen Jaungoikoak egin eriotza, **ez** du atsegiñik bizien ondameanean, bizirik irauteko egin zituan Arek gauza guztiak; munduko izaki guztiak osasungarri dira; **ez** da oietan eriotzarako pozoirik, **ezta** leize-zuloaren aginterik **ere** lur-gaiñean, zuzenbidea illezkoarra bait-da.

415. Gu gera gauza auen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere bai. (bai bi aldiz).

418. Guretakorik iñor ez da beretzat bizi, ezta iñor beretzat bizi, ezta iñor beretzat iltzen ere.

947. Ez dizute berriz deituko "Utzia", ezta zure lurraldeari ere "Ondamendia".

Orixe, Urte guziko Meza-Bezperak, 633 a: Beraz, Zure Seme Jesukristo gure Jaunaz oroituki, **bai** Pasio doatsuaz, **bai ta** lurpetik Pizteaz, **bai ta**. Zeruratze argia ospatuz, Zuri, Jainko aundi ta argitsu Orri, (...) Mitxelena, Euskera XXXII, 127 a: Etxepare baino lehenagokoak ahalegindu gara biltzen, erabat edo ia erabat, **baita** geroztik agertu diran lekukotasun bakanak **ere**. 128 a: Nora ezean gertatu da, lehengo **eta baita** oraingo kasu askotan, beste

biderik ez genuelako gauzan berri jakiteko. Irigoien, Euskera XXXII, 203 a: (...) mintzaira, mintzoa, Mea, eta baita hitza eta berbea ere (...). 204 a: (...) baina Saussure-n zentzuan baita hizkera ere (...)

Aukera murrirtza egin det, baiña iñork ere ere bai eta ere ez idazten ezti-tuanaren susmoa sortzeko aiña badala esango nuke. Dana dala' también euskeraz ERE BAI, eta tampoco berriz ERE EZ esan eta idatzi bear genituke-la aski argi eta garbi utzi dedala uste det, baiña ori erabakitzea euskaltzaiñoi dagokizue. Ori baiño ere zeatzago esanik: "Pallo emen da, eta Patxi ere etorri da" (Pedro está aquí, y Paco también ha venido) esaera gogoratzen badegu' también = ERE dala esan bear; "Pello ezta emen, eta Patxi ere ezta etorri" (Pedro no está aquí, y Paco tampoco ha venido) gogoraturik tampoco = ERE. Gaztelania motz gelditzen da: asimismo si eta asimismo no lirake itzulpen zeatzak.

ERASKIA

Kantu zaarretan ediren ditudan batzu.

Salaberri / Chantz populaires du Pays Basque.

30 a: Itxasoti mintzatzen da zilharrezko trunpeta, Bai eta're ikharatzen Olandresen ibarra.

44 a: Goizetan eder dizv ekhiak leiñhvrov, Mvndi'argitzen dizv vngvrv vngvrv; Ni ere zur'unduan hala nabilazv:

190 a: Goizian goizik jeiki nvndvzvvn espusa nintzan goizian; Bai eta zetaz ere beztiv ekhia jelkhi zenian; Etxek'andere zabal nvndvzvvn egverdi erditan, Bai eta ere alhargvntsa gazte ekhia sarthv zenian.

Musde Irigarai, ene jaona, altxa izadazvut bvria; Ala dolvtv othe zaizv eneki espusatzia?

— Ez, ere, etzitadazv dolvtv zureki espusatzia, Ez eta ere dolvtv-ren bizi nizano lvrrian.

230 a: Zeren beitzen lili oren
eijerrena,
Bai eta ene bihotzeko
maii:enena, (...).

310 a: Laugarren hori zer pheza,
M... zapatainesa;
Untsa esplikatzen zituen heskuara eta frantsesa,
i eta ere aisa agiten bide handian esa; (...)

315 a: Arrastiritan dantzatv
plazer ere bai hartv (...)

348 a: Zankho-besuak gogor eta bizkarrian zauria,
Bai eta istant gvziez Ivrrilat erorlia.

384 a: Hitzaz gvtvk estunutzen, Museñako kuntia,
Zerentako hartzen dian Gaiñetarren althia:
Ar' **eta** nik **ere** eztiak horetako antsia.

Aphez beltxaren kantua:

Igande-mezak erraitian,
Harrixuriko gainian,
Eskopeta kargatu nuen
neuretzat zorigaitzian,
bai eta ere deskargatu
aphez beltxaren gainian.

Amalau eriotzena:	Martiñ Etxeberri'ko ateak yo nituen bai eta ireki ere Agurr etxekanderia berriz ere behar dugu bai eta`re arratsian	Altzibarr' enian ongi illunian, borondat' onian. gure diruen jabia: arnoakin ogja, kartekilan argia.
-------------------	---	---

Bordaxuri, 10 b.:	Kantzu hauk eman ditut / Paube'ko hiñan, burdinez kargaturik / oi! presondegian, bai eta kopiatu / denbora berian (...)
-------------------	---

Ziburu'tik Sara'rat: Maitia bizi zaite / gazte ta lorios,
bai eta fidel izan / hitzemanenez geroz (...)

Anderia, gorarik zaude leihoan: Izan niz Frantzian eta Espainia'n, **bai eta**
ere Angleterra guzian (...).

Ikusten danez' **bai eta`re** amar pikuko lerroen erdia egiñez agertu oi da;
lerro ttikizko bertsoetan **bai eta** agertzen da, beti **ere'rik** gabe. Ala ere' ikusi
"Amalau eriyotzena"ren lenego bertsoan **bai eta** ireki **ere**.

Zatarain dar A



EDERTILANAK ETA EUSKARA

Gaur egun edertilanak zerikusi aundia daukate Euskalerrria'n; izen ezagunak, erakusketak ugari, idazlanak maiz, ikerketak gero eta geiago. Edertilariak langilleak dire eta emaitza aberatsa uzten digute.

Zerbait ikusi dugu arrituta utzi gaitunak. Edertilarien inguruan idazlan asko sortzen dire ta askotan euskeraz. Edertilaneen inguruan, nolako euskara erabiltzen duten jakitea, bidezkoa deritzaigu.

Gauzak bertatik bertara ikusteko, eredu bat artu bear dugu. Gaur gure aukera egiña daukagu: Anton Mendizabal irudigille ezaguna. Elerti edo literatura ederra jaio da euskaraz, gizon ospetsu onen inguruan. Edertilari bezala lan luzebat eskeñi diogu "SASKI-NASKI" aldizkarian. An agertzen dugu gizona ta lanaren azterketa. Benetan emaitza aberatsa eskuratzen zaigu.

Bi itz Anton Mendizabal'eri buruz, gutxinaz laburpen txiki bat. Nor dugu gure edertilaria? 1945'garren urtean Donostia'n jaio zen. Euskara, ikastolan Elbira Zipitria'rekin ikasi zuen (1949-1953).

"Filosofia y Letras" egin ondotik, ogeitabost urte lortu ditu irakasle bezala Errenderi'ko Orereta delako ikastolan (1967-1993).

1973'garren urtean, osaba batekin besaizkora (zizela) erabiltzen asten da. 1992'garren urtean, era bat edertilaneetan igaro du bere bizitza osoa. Izen aundi bat irabazi du edertilari bezala, baita ere sari ederrak jaso. Liburu politia batzuetan beragaz mintzo dire.

Lan garbia egiten du bi eskuekin, euskal kutsu aundikoa, egokitasuna alderdi guztitik nabari.

Anton Mendizabal'eri buruz, gure eskuetara erori zaizkigun idazlan denak bildu ditugu, asmo bakarrarekin; nolako euskara erabiltzen duten jakiteko.

Ortarako lan batzuek, izenburu berexiekin jasoko ditugu ta lan oeatatik eredu zeatzak aterako.

EREDUEN ZERRENDA

Idazlanak egitegunari buruz eratuak izanen dire. Ementxe datoz ba eredu batzuek:

- ANTON MENDIZABAL: HAMABI URTE-KUTXA 3/10/1993

—EDORTA KORTADI: KONZEPTUA TA ESKU TREBEZIA

- "kontzeptua"
- "denbora geometrikoa"
- "kosmoa ta natura"
- "artisautzako objektuen diseinugitea"
- "li breki"
- "banguardistetan"
- "bolumen eta dinamismo"
- "prozesu"
- "bi dimensioko plano"
- "tradiziozko formak"
- "kreatiboa abiapuntutzat"
- "objetu frogaleku"
- "forma aldetik konplexuagoak"
- "prozesu pausatu eta koherente"
- "obrak"
- "propio ta autonomia"
- "sintetizatu ta aglutinatze"

—L. ETXEZAHARRETA: ZIZELAZ ARGIRA

—alegranza"

- JUAN LUIS ZABALA: ANTON MENDIZABAL-EGUNKARIA 1995-IV-8

- "joko nazional honen sinbolotzat"
- "estetika"
- "espazio libre... tensioan"
- "sentsazio"
- "dudarik"
- "estilo propioa"
- "tantoak kantatzen"
- "pilota partiduaren ideia"

- JUAN ZULAIKA-ANTON MENDIZABALEN ESKULTURAK EGUNKARIA 1995-IV-27

- "subkonziente kolektiboaren"
- "arkitektonikoa isladatzen"
- "espazio libreek"
- "existentiala"
- "tenplu sakratuak"
- "azken finean"

- ANTON MENDIZABAL-ON MANUEL LEKUONARI-LASARTE UDALA 1995 (GATALOG.)

— EDORTA KORTADI: ANTON MENDIZABAL. MANUEL LEKUONA

"presenzia"
 "konektatzen"
 "profetizatu"
 "obrren eskala humanoa"
 "artikulatua"

- ANTON MENDIZABAL-PILOTALEKUAREN ESPAZIOAK MALLOPEAN. ARRIBEL, 1995-V-1 (CATAL.)

"frontoi famatuaren"
 "kuadrillarekin entsaiatzen"
 "espacio librea"
 "dentsitatea"
 "sinbolo gisara"
 "sake... errebote"

- GILLERMO ETXEBERRIA-ZAHARRAK BERRI. DIARIO VASCO 10-V-1995

"komentario"
 "esposizio"
 "inspirazio"
 "atabismo"
 "sugerentziaz"

- MIKEL ASURMENDI-ANTON MENDIZABALEN ESTELAK IKUSTEN. DIARIO VASCO 1995-V-31

"klasizismo bat eskulturan"
 "espresio hori asumitzeko"
 "importanteak"
 "nire kasuan"
 "elementu"
 "sujeritu"
 "kulturalki, bai estetikok"
 "Interesatua"
 "sinplificatu, sublimatu eta sinbolo"
 "kontu profano"

- JOXEMI SAIZAR-ANTON MENDIZABAL ESKULTOREAREKIN. ARGIA 1995-VI-18

"proiektu"
 "kontraste gisa"
 "sufritu"
 "serie"

- ANTON MENDIZABAL: "PILOTA GAIAREN INGURUKO IKERKETA-ESTETIKU" 1996

"esperientzia personala" (1 or.)
 "balorapena, konzeptoak eta medioak"

"seriea"
"espacio dinamika"
"kontenplazio modua"
"estatika isladatzeko" (2 or.)
"materiak"
"planteamentu pedagogikoa"
"ideia"
"errebisio" (3 or.)
"bersiosinpleago"
"posibilitate eskultoriko"
"pilotaz eskultura projektua" (5 or.)

IKERKETAREN ONDORIOAK

Eredu guzti oiek zerbait oso garbia dakarkigute burura:

Bat; gure euskara "mestizo" izkuntza biurtu digutu. "Mestizo" itz itsusi ori, naita erabiltzen dugu, nolako kaltea egiten dioten garbi ikus dezaten.

Bi; orrelako itzekin gure euskara "ROMANCE" delako izkuntza batean aldatuko digute. Euskara erderaren morroi geldituko da. Euskarak daukan nortasun berexia galduko du.

Iru; Juan de Irazusta'k, emezortzi garren gizaldian egin zuna elizako euskararekin, orain ogeigarren gizaldian orixe bera ari dire egiten edertilanen euskararekin. Orrek esan nai du euskara "pikuta" botatzen ari direla.

Lau; euskara, erdararen uztarpean elditzen da baztertua. Erdara goien, euskara beran zokoratua.

Bost; zerrenda luze orren itz edo esaldiak erdaraz asmatuak daude. Ez dire alegintzen jakitera, nola esango lituzketen zati oiek berak euskara garbian, euskaldun jatorrak bezala. Erriak nola esaten ditun jakiteko gogo gutxi; ortarako izerdi lodia bota bear.

Sei; lan ori norbaitek egin bear ko du. Etorri da garaia euskara, bere mallan uzteko, au da oso goien.

Zazpi; orrelako lan txarrekin euskarari kalte aundia egiten zaiola denok ikusten dugu. Gaitza orren erroak jakitera beartuak gaude.

Zortzi; Gaitzen erroak nunbait daude eta bide ori billatu bearra dago. Giza-izti aldetik (antropologia) billatu bear egizko erantzuna.

Bederatzi; gure izkuntzaren gertaera ortan itzen arauak eta bearrak baño geiago, gurene (glándulas) maillako indarrak agintzen dute eta ematen digute bear dugun giltza.

Amar; erderakada pilla orrek, ezin egona, errekeria eta bestiak meperatzeko errextasuna aitortzen dute.

Amaika; izkuntzaren etorkizuna ez dago, gurene malako indarretan, ezta ere bestiak menperatzeko urratsetan, gure erriak daukan jakintzan baizik,

Amabi; erriak dauka azken itza. Edertilaneri euskal usaia emango dietenak sortuko dire zalantzarik gabe.

EDERTI IZTEGIAREN LABURPENA

Gure aldetik, euskal itz eta esaldi jatorren billa alegindu gera. Anton Mendizabal'en lanari SASKI-NASKI ALDIZKARIAN (1996) eskeñiko diogun idazlanean, erriaren euskaratik jaso ditugu itzak. Ara emen bildutako iztegi-txoa:

Ari-gizon = estela discoidea
Ari zutak eta zearrak = líneas verticales y horizontales
Buru borobilla = circular
Edur mukilka = lanzarse la pelota
Enparanza irikia = plaza libre
Ertilari = artista
Ezker orma = pared izquierda
Etzana (marra) = horizontal
Irudigillea = escultor
Itzuliz = de rebote
Izendegi = catálogo
Jai-alai = frontón
Kizkur = ondulado
Lauki = cuadro
Marra = línea
Puxka andia = masa
sarkorra = penetrante
Tarte zabala = espacio
Trapezide = trapecio
Trinketea
Udal-arkupea
Zoko-antzeko = angular
Zoko-ondo = ángulo
Zutin = vertical

AMAIA

Erdal itzak artu aurretik, errian bildutako gaiak jaso bear genituzke ta gaiari dagokion iztegitxoa jasotzea bidezkoa deritzagu.

Euskarak maitasuna eskatzen digu, gure maitasunaren zai dago. Egitazko maitasunak bere lanak ematen ditu.

LATXAGA

IMANOL MITXELENA EUSKARAREN BULTZAGILLEA HENDAIA'N

Imanol Mitxelena Ormazabal apaiza, anaiarteko guda ezkerotik Hendaia'n bizi da. urte guzti oietan bultzada ederra eman dio gure euskarari Bidaso'ko inguruan. Beti eskeñi dizkio kemena, sua ta garra.

SENDI ABERZALEA

1914'garren urtean Irun'en jaio zen, oso sendi aberzale ta egoki batean. Aita, Maximo Mitxelena, Irun'darra, margolaria bezala ateratzen zuen bizibidea. 1931'garren urtean Irun'go batzokia sortu zuen. Agintarien maikide buru daukagu guda sortzerakoan. 1958'garren urtean, irurogeitamabi urtekin Hendaian'n il zen.

Ama berriz, Antonia Ormazabal, Azpeitia'rra, jostuna zen. Onexek lanaren izerdiarekin sendia atzerrian aurrera atera zuen. Bost seme-alaba euki zituzten.

Eusebio Mitxelena, bere anaia, gudari izana Laredo'n atxilotu zuten, geroztik andik erbestera iges egin zuen. Frantzia'n Euskadi delako gudari taldean, alemanen aurka borrokan ibilli zen, "POINTE DE Gabe" delako gudaldian. De Gaulle guda nagusiak talde osoa berexi ta saritu zuen. Gero, etxeak margotzen ateratzen zuen bizimodua; iru alaba utzi zituen.

IMANOL Mitxelena'k, ikasketak Saturraran'en (1926) eta Gazteiz'en egiten ditu. 1930'garren urtean irikitzen duten Gazteiz'ko apaiztegi berrian dago.

1936'garren urtean, dagonillan, Hendaia'ra iges dijoa. Azaroan Baiona'ko apaiztegia sartzen da; Euskal-Egoaldetik amabi apaizgai dijoaz.

1937'garren urtean, Antoniutti delako Aita Santuaren Ordezkariek, tarteko dela, Baiona'ko apaiztegitik, Ipar Euskalerritik alde botatzen dituzte Egoaldeko apaizgai ta apaiz denak. Nola ibilli zituzten makilaren aurretik, euskal apaizgai aiek Baiona'n, merezi luke "PASTORAL" bat, Xibero'ko erara egitea, eta gai ori ondo idatzita uztea, geroak mintzo dezan. Azkenean Akitze'n (Dax) artu zituzten.

1939'garren urtean Mgr Mathieu gotzaiak, Imanol Mitxelena apaizten du Akitzen'n, San Pedro egunean.

Ogeitalau urte egiten ditu irakasle bezala Akitze'ko ikastetxean (1937-1961).

1961'garren urtean ba dator HENDAIA'ra, ama alargunarekin bizitzera. Endaia ta Donibane Lohitzun'en ematen ditu ikaskaiak.

EUSKARAREN ZALETASUNA

Ba datorkio garaia euskararen zaletasuna esnatzeko. Ortaz asko ikusi bear dute Jon Oñatibia'rekin eukiko ditun arreman berexiak.

1969'garren urtean egiten du udaran euskara ikasteko ikastaro betea Donostia'n, Jon Oñatibia irakaslearen ardurapean. Jon Oñatibia ta Manuel Mitxelena'ren ama oso lagunak egin ziren. Irratiko ikaskai guztiak jarraitzen zituen emakume onek.

HAIZE GARBIA delako elkarte sortzen da Hendaia'n eta ortxen bertan, 1969'garren urtean zuzentzen dute Oñatibia'ren euskara ikasteko ikastaro berexia. Ogeitamar ikasle datozkie, astian bi egunez arratsian.

Euskarazko ikastaroak 1969'garren urtean asita 1984'garren urtea arte egin ziren, urtero. Garai batean berrogeirentzat ikasle zetozen, gutxinaz berriz amabost. Lau irakasle laguntzalle zetozkien. Imanol Mitxelena irakasle bezala lagundu zien urte oietan.

Ortxen asten dire argitaratzen, Lapurdi'ko euskaraz, "EUSKERA IRRATIA-REN BIDEZ" Joan Oñatibia'ren bi liburuak; 1970'GARREN URTEAN agertzen da lenengoa ta 1981'garren urtean bigarrena.

Orren ondotik, 1972'garren urtean argitaratzen du Imanol Mitxelena'k abbé Michel'en IZTEGIA (Frantsez-Euskaraz). Zazpi argitaraldi egiten dituzte, baita ogeitazazpi mila ale saltzen. Iztegia egitazko altxorra biurtzen da.

1978'garren urtean Imanol Mitxelena'k, euskal eliztia lau aletan argitaratzen du: bakotsarentzat iru mila ale. Eziketa aldeko lana Imanol Mitxelena'rena da, izkuntza aldekoa, Minaberi andereñoa eta Laffitte'rena. Arrakastarik aundiena iztegitxoak jaso zuen.

Gañera, Imanol Mitxelena apaiza jaunak egindako lanik ederrena, eliz giroko IKASTOLA Hendaia'n sortzea izan da. 1971'garren urtean sortu zuen bi izkuntzetan; bigarren urtean lau ordu euskeraz, bi ordu frantsezez, txikiak dena euskeraz. Amasei aur zituzten eta andereño bat, Madame Artola. Ondartza ondoan zegoen egoitza, elizaren etxean. 1983'garren urtean elizaren ikastetxeak irentsi zuen ikastola. Bizirik eusteko ikastolari zalla egiten zitzaaien gurasoei. Eguarritan, oparietako eskutitz marraztuak saltzen ibilli ziren, baita ere aurrendako ipui liburuak. Sei mila ale aste batean saltzera iritsi ziren. Lana gogorra ta zalla, benetan bearrezkoa.

Oso argia dugu Imanol Mitxelena. Ezin dugu aztu "HAIZE GARBIA" delako aldizkaria sortu zuela. 1973'garren urtean asi zen argitaratzen eta 1983'garren urtea arte iraun zuen; ogeitamabi zenbaki agertu ziren, aldiro mila ale egiten zituzten. Doai ematen zituen. Iragakiekin ordaintzen ziren.

Aldizkari onetan eten gabe agertu ditu lanak euskal kulturari buruz, den denak erderaz, lan bat ezik, ura euskaraz eginzuen. Imanol Mitxelena, euskaraz idazlan (artikulo) baten egillea dugu, iru orrialdeko lana: "YON OÑATIBIARI MILESKER" (Haize Garbia, 1977 urria, 25'gn zenbakia). Jon Oñatibia'ren erioztzean idatzi zuen. II berriaren euskerazko lanak aipatzen ditu, batez ere, bere amarekin zeukan adiskidetasuna.

Euskara ikastea, bizitza osoaren lana izan da. Hendaia'n aitortzen aulkietan, zeñen bearrezkoa zen euskera ikastea, apaiza bezala oartu zen. Hendaia'ko baserritarrak, askok euskaraz egiten zituzten aitortzak. Imanol Mitxelena'k, danez gain, berez maite du euskera.

1981'gareen urtean, Hendaia'n Jon Oñatibia'ri omenaldi galanta eskeñi zioten. Orpotik asita, ekintza onen buru Imanol Mitxelena izan da.

GIZON LANGILLEA

Imanol Mitxelenak erriko Kultura asko landu du. Bizpairu liburu ditu Bidaso'ko bazterrari buruz egiñak:

"HENDAYE, SON HISTOIRE, 1987", bi mila ale salduak: askena, "LA BIDASSOA-L'ILE DES FAISANS", 1989; mila ta berreun ale.

Gañera, laguntza osoa "FEDEA GIDARI" delako bildumari eman zion. Au da Iriart Urruty'ren ardurapean egin den lanari; bost liburu dire.

Gauza bera gertatzen da beste bilduma batean:

"HOMÉLIES POUR LE CYCLE A", abbé Jean Cazarres'en ardurapean egiña. Ogeitamarren bat itzaldi Imanol Mitxelena'k egiñak daude.

Ba ditu ere, eskutitz pillaren bilduma. Gizartean zerbait gertatzen dela ta idazti luzea egiten dio norbaiteri, korapilloak naiko ongi Jotzen ditula. Geiener-tan erri-gizonei edo agintariei zuzenduak daude.

Gauregun, euskal gazteentzat dei sakona ta luzea idazten ari zaie, mezu mardulakin.

Argitaratzeko beste lan bitxia dauka zai: atxilotuta il zituzten aberzaleen azken itzak. Egitazko altxorra euskal edestiarentzat. Ba da azaltzeko garaia.

Ezin ditugu aztu, Hendaia'n izan diren eresialdiak edo ERESI ASTEAK, beti Azaroan. 1972'garren urtean asi eta 1984'garren urtea arte iraun dute, baita arrakasta ederra jaso. Amar Irrati zetozkien doñuak artzera. Ekintza orren sortzallea ta arnasa, Imanol Mitxelena da.

Ikaragarritzko lanak artu zituen, baita ere, Bilbo'ko kaltearrak laguntzeko (1983). Garrantzi audiko ekintza onen alde osorik lanari lotu zen.

Aipatutako Imanol Mitxelena'ren ekintza berexi abek egin dute Hendaia erria Euskalerrria'n euskal kulturaren bultzagillea: Hendaia'n zegoen euskal sena ta arnasa, baita ere uzta ederra. Ori dena urrezko euskaldun baten lana, gizon baten emaitza, batez ere euskal biotzarena azaltzen zaigu, besteen eskuak jaso bearra.

LATXAGA

AZKOITI' KO GABON-SARIAK...!!

Gauza onen berri jakin nuan ezkerotzik, kezka-antzeko bat izan det beti nerekin... "Gabon-sariak" Gabon-abesti batzuek izanik, zergatik ez "Gabon-kantak" esan...? Kantua eta saria ez bait-dira berdiñak neretzat. "Kantua" kantua da, eta oparia "saria", eta ez kantu bat... Eta arrazoi osoa ematen dik, azken batean, Luis Miserikordikoak bere sarrerako itzeetan... Ona zer dion berak:

Nere biotzeko ongintxo maiteak: igaroko urtean gabon-saria pran-ko eman badidazue ere, ora aurten, aurrea artuta, nun neuk ematen dizuedan. Ta nolakoa,. ala ere? Zuek geienean aza-buru bat edo bakallau-bustan batekin azkidatu ta kunplitu dezue nerekin: abaña nik zuentzat berariaz inprimierazo ditudan kantatxo edo ealdi eder auekin erragalatzen zaituet...

1762-an argitaratu zan lenengoz "Gabon-sariak" liburuzka... Lau zati bezela ditu: iru otsaldi eta koplak jostallu batzuek...

Eta Luisa Miserikordikoak-berak esaten diru garbi asko, eta umore onez, zergaitik argitaratu zuan "Gabon-sariak" liburuxka au... Ona-emen ere, bere itzak:

Igazko Gabonetan ekussi nituan gurre etxean makina bat Gabon-kanta inprimitu: batzuek Bilbao'koak zirala, besteak Madril'koak, Kariz'koak ta eztaikit nun añurrietako batzuek: ta "adios" nun berealaje gogoak eman zidan: Zer...! Beste iñun diran Eleizeak inprimierazotzen ditue, ateratzen dituen kantaak (azkenik, Bilbao'ko San Praisku'ko Prail gajoetaraño), ta gure Azkoitiko Eliza ederrean kantatzen diranak illunpean gelditu bear dabe...? Nundik nora...? Ez debe beste erdera mordollosko abek ainbat merezi...? Ez bada: Jaungoikoak nai badeu, ta datorren urtean bizi banaiz, soñean daramadan gona au salduko badet ere, inprimitu bearo debe, demutxoetan... Orra bada, essan da egin, nun inprimierazo dituda aurten, gure Azkoitiko misika aingeruskoak kantatuko dituan iru kantaldia...

1889-an egin zan "Gabon-sariak" liburuka onen bigarren ageraldia... Ba'zan orduan Donostia-n "Euskalerrria" izeneko aldizkari bat, eta onetxek argitaratu zuan bigarrenegoz, eta José Ignacio Arana, azkoitiar jesuitaren "itz-aurre" txukun batekin argitaratu ere...

Esan dezagun ere, aurrera egin baño leen, 1762-garrenean ez zala Azkoiti-n Karidadeko-Alaben etxerik, naiz-eta Miserikordi-etxe bat egon bertan... Eta ori ala izatea, dalako "Luisa Miserikordikoa" ez zala erligiosa bat, "serora" bat baizik: gure orduko Miserikordi-etxeetako gaixoak zaintzen zituan etxe-koandre bat: bertako gaixoen kargua artzen zuan arduradun bat...

Eta Azkoiti-n ba'degu, amar ute geroago, au egizatzen digun beste gerta-

kizun bat... Ogei urte zituala, Josefa Larramendi (Santa Cruz-ko Josefa ama benegarria alegia) serora sartu zan Azkoiti-ko Miserikordi-etxean 1672-garren urtean... Ona Nemesio Arzalluz-en itzak:

Josefa lleva en Churrucaeche cinco años y ha cumplido los veinte: una obsesión torturante la domina: la conciencia angustiosa de que no hace nada, de que va mal y e spreciso cambiar de vida. Se decide a pedir permiso a su confesor para trasladarse al hospital (Miserikordi-etxea) y entregarse allí al cuidado de los enfermos...

Ez ziran bada, Karidadeko-Alabak Azkoiti-ko Miserikordi-etxea eramaten zutenak, bertako emakume batzuek baizik: serora izenez ezagutzen ziran emakumeak... Eta guzti-onek garbi asko esaten digu, Luisa Miserikordiakoa ez zala izango noski "Gabon-sarien" egillea, naiz-eta gure Joxe Ignacio Arana-k, gogor eta itzez-itzez, bigarren argitaldiko Itz-aurrean esan, Miserikordiko Luisa izan zala Gabon-sarien egille, Luisa berak ala dilako liburuan... eta kito...!!

Ba'da ordea, Miserikordiko Luisa-k esaten digun zerbait geiago ere:

Koprarik (kopla) geienak nere burukoak dira: ta bost gaubela ta izardi gozo kosta bazaitzite ere, ondo enpleatuztat ematen ditut diranak... Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai) Martin Beltz gissajoak mesederik asko egiñiz lagun eginda batez ere seguidilla ta arako "aria edo kopra andi aetan", bada sekula alakorik nola ekussi ere ez neban, ezin asmatu neban: ta ark, berriz, nola iñuziak ere egiten dakian, asko daki ta gizon jakintsu bat da...

Eta emen bai, galdera asko datozkidala burura... Egia da, gaitz-izenak, norberaren izenak baño indar geiago duala Azkoitia-n... Eta leen bezelaxe, orain ere... Eta Martin Beltz au nor ote genduan...? Bertako bertsolariren bat...?

Bertsolari arrunta bat izateko, ez ote da Miserikordiko Luisa-k esaten duan au, geiegi...? "Lagun eginda batez ere seguidilla ta arako" aria edo kopra andi aetan", bada sekula alakorik nola ekussi ere ez neban, ezin asmatu neban...

Martin Beltz au, ez ote zan bertsolari arrunta bat baño geiago izango...? Ez ote zuan gauza auetan bere muturra sartu Peñafiorida-ko kondeak...?

Miserikordiko Luisa-k dionez: Soñua edo Soplea ez da nerea: ez dakit orrenbeste: baña Probinzian diran maissurik pamatuenai eragin diet...

Gegoago On Manuel Lekuona-k esango digun bezela:

Manterola-k susmo zuan bezela, saltsa gozo guzti artan Peñafiorida kondea etzala urruti ibilliko... Liburuaren argitaltze-kontuan batez ere Mezenas antzo...

Baña egillea... "Gabon-sari auen" egillea nor izan ote zan...?

Azkoitiar askoei, ez zaie, bear ba'da, atsegingarri izango Manuel Lekuona-ren iritzi au:

Nik, egia esan, Loyola-ko eskua ikusten det argi ta garbi, kantu polit

ontan... Loyola-ko esku jakintsua... Eta esku ezagun-ezagun bat gaiñe-
ra... Aita Larramendi-ren esku bipil ta alai, eta maltxur ta desairetsua...

Eta ospetsuak ziran benetan, garai artan Loyola-inguruan zebiltzan jesuitak... Ardoari kanta zion Meagher aita, Mendiburu, Kardaberaz eta Baztarretxea... Jesus-en Eriotza bezelaxe, ederkitxo kanta bait-zezakean olerkari bizkaitar bikain onek batez ere Jesus-en Jaiotza ere...

Ala ere, Gabon-sarien egilleak, bertako Itz-aurrean agertzen dituan doaireak eta umore oneko esaldiak, zera agertzen digute argi-ta-garbi: Itz-aurre orren egille, iñor izatekotan, Larramendi izan bear duala orrek... Au bait-zan edozer-tarako ausarta eta umore oneko... Eta Itz-aurrea berak egiña baldin ba-da, baita liburuzka ere... Onela bait-dio, leen esan degun bezela, Itz-aurreko egilleak:

Koprarik geienak nere buruzkoak dira: ta bost gaubela ta izardi gozo kostat bazaitzite ere, ondo enpleatutzat ematen ditut diranak...

Errezak dira orain, guzti-auetatik atera bearreko ondorioak... Eta auetxek dira On Manuel Lekuona-k ateratzen dituanak:

Gabon-sarien "egillea Larramendi alta-jesuita dala bere iritiziz...

Egia da Peñafiorida-ren laguntza izango zuala, bai kantaldi batzuetan: segidilla eta aria-etan: eta baita diru-aldetik ere... "Mezenas" bat izango zan Peñafiorida Larramendi-rentzat liburuxka argitaratzekotan...

Luisa Miserikordia ez zala erligiosa bat, serora bat baizik: Miserikordi-etxeke gaxoen ardura zuan serora bat...

Eta leen oitura zanez, ez zituala Larramendi-k bere Gabon-sari auek bere izenez izenpetu. Eta "Luis Miserikordikoa" izan-ordez argitaratu zuala Larramendi'k bere liburuxka...

Au da On Manuel Lekuona-k ematen digun bere iritzia... Zuzena...? Oker...? Izan ere, Azkoitia-n, orrelako lanak Peñafiorida-ren bizkarrera bota izan oi ditugu beti... Eta emen ere, galdera berdiña egingo genduke: zuzen...? Oker...? Zuzena ote da beti jokabide ori...?

Eta bukatu dezagun guk ere, "Gabon-sariak-ko" azkenengo koplarekin:

Bañan kanta berri au
geitxo luzatu da;
nere eztarri tristea
ia urratu da...

Naiago det issildu
katarratu baño...
Agur nere jenteak,
urrengo urteraño...

Anastasio Albisu Ayerdi
1995-XII-26



EUSKERAZAINTZAN

Esker onez, barne muiñetik, neure burutxoaren agerpena egitera noakizue.

Neure bizimodua banketxe batean emana det berrogeitairu urteren joanean.

Gure ume denboran, gerra ikaragarri aren inguruan, eta donostiar izanik, ez zen erraz euskaldun izaten. Eskerrak gurasoei. Aiengandik artutako euskal mintzoari eusten, aal izan dedan neurrian, neure jarduntxoa egiña naiz. Bide orretan, orain emezortzi urte, zorionez, Felipe Yurramendi irakaslearekin topo egin nuen, Udaletxeko Euskal Mintzo eta Iztunde Eskolan; eta orrela Euskera-zaintzaren berri ere gertutik jakiteko aukera izan nuen; eta aspaldidanik dakizkit zuen aalegiñak aldapa luzean eta latzean.

Gure etxeko sukaldean iru euskalki osatzen genituen. Ama arbizuarra nuen, beraz, naparra. Aita Aiakoa, gipuzkoarra; eta emaztea Bizkaikoa, lurretakoa. Eta bakoitzak bere euskalkian itz eginda, ondo baiño obeto ulertzen genuen elkar.

Esan bezala, emaztea Bizkaikoa dot, umetan euskerie sakonetik artu eban. Ama Arrazolako baserri batekoa izanik, Anbotopeko urbegitik etorren euskera garbie artu eban.

Aitarena entzuteko denpora gitxi izan eban. Ogeitamazazpiko Martien 31an, gerrak bidali euskezan Kondor izeneko egazkin beltz areek, Durangon botatako leerkariek eroan eben mundu onetatik. (G.B.).

Ikus daikezuenez, ba dot arrazoirik, Bizkaia eta bizkaiera maite izateko.

Zuen parkamen osoagaz eta lar luzatu barik, onelan amaitu gura neuke:

EUSKERAZAINTZAN

1. Ni ez naiz iñor jaunak
emen egoteko,
zuen ontasun ori
izan det arteko.
Euskal zaletasuna
izanik etxeko,
non ninteko ni orain
emen baiño obeto?

2. Ta nik neure aldetik
zuei zer eskeiñi?
Neure ezerezean
ikasle bait naiz ni.
Ori eskeiñiko det,
ori zait komeni,
euskerak emen bait du
ezur eta mami.

3. Zuen EUSKERAZAINTZA,
ederra bazkuna!
Erri euskera lantzen
egiñik jarduna,
orrela izan dezan
beti osasuna,
Euskalerrriak ortxe
bait du nortasuna.

4. Aipatzea nai nuke
mendiko euskera,
baserritarren alde
bait det nik joera.
Gutziz ona da beti
oien itz joskera,
erdal kutsurik gabe
baita mintzaera.

5. Euskerazaintzak lantzen
ba, erri euskera,
or euskalki guztiek
ba dute aukera.
Bizkaiko, Naparruko
eta gipuzkera,
berdin Lapurdikoa,
berdin zuberera.

6. Ta nola ez aipatu
oien oiñarria?
Familia, eliza
eta baserria.
Oiñarri ta zutabe
ta bizigarria,
ortxe sendotua da
euskaldun Erria.

7. Gaur berriz gaixo zaude
Euskalerrri kuttun,
leengo sena zaar ori
ez dakit non dezun.
Bazterretan ba dago
naiko eginkizun,
giroa jarri zaizu
goibel edo illun.

8. Goibelaren menpean,
O! zu euskalerrri,
zure lur maite ontan
beti negu gorri.
Pakearen bidean,
urrun udaberri...!
Noizko eguzki printzen
argiaren irri?

Joxemari Murua



ARRIZALA / ARRIZABALAGA.

"EUSKERATZAINZA" ALDIZKARIA LANAK ETA IDAZLEAK

1.987'urteko azken iru-illebetekoan asi giñan "EUSKERAZAINZA" aldizkaria argitaratzen.

Irakurle batzuen eskabidez, eta aldizkariko lanen eta idazleen zeaztasun bat emon nairik, ordurarteko zerrenda bat idatzi gendun XXVII zenbakian.

Ordurartekoen aipamen utsa egiñaz, ordutik XXXIV garren zenbakirarteko idazle eta idazlanen zerrenda emon nai dogu XXXV garren zenbaki onetan, gerokoentzat eta idazle, ikasle eta zaletuentzat, gure arteko lanen barri zeatz bat eukiteko aukera emonaz.

Idazleen abizenen alfabetaren ordenan agertzen da zerrenda.

AIERBE, JOSE

Ogei ta bost urte geroago. XXVII zenbakia.

AIERZA, MARIBEL.

Ikus XXVII zenbakia.

AKESOLO, LINO.

Ikus XXVII zenbakia.

ALBIZU, ANASTASIO.

Ikus XXVII zenbakia.

Azkoitiar batzuen ateraldiak. XXVII.

Arana tar Jose I. Aita. XXVIII.

Erraondoko txistularia. XXVIII.

Errietako gizon prestuak. J.M. Albisu Sarasola. XXIX.

Urrategi.- XXXII.

Auntz basatia. XXXIV

ANDRINUA. MARTZEL.

Ikus XXVII zenbakia.

AROSTEGI, LUIS.

Ikus XXVII zenbakia.

ARRINDA, ANES ETA DONATO,

Ikus XXVII zenbakia.

ARRINDA, ANES

(Anes Lazkaoko; Arranegiko Anes; A.A.A.; Anes).

Ikus XXVII zenbakia.

Jose Ventura Landa, idazle ta Debako parroko. XXVI

Unamuno eta Euskeraren eriotza. XXVI

Gau arrantza. Olagarrua ta adokiñak. XXVII

Euskaltzaindiaren eztaietan. XXVII.

Garai gaiztoetako idazle euskaldunak. XXVII.

Euskaltzaindiak 25 urte betetzean. XXVIII.

Apostoluen eta Martirien denborako Eleiza. XXVIII.

Biblia. Jainko eta gizonen arteko arremanak. XXIX.

Euskaldunak Munduan. Lavigerie. XXIX.

Anastasio Albisu'ri omenaldia Azkoiti-n. XXIX.

Olerkari galduak. Peli Markiegi.- XXXII.

ARTOLAZABAL, HILARIO

Ikus XXVII zenbakia.

ARZELLUS, AMALE.

Ikus XXVII zenbakia.

Erri euskeraren azterketa. XXVI.

Arzellus eta Toledo tar Ander. XXXIII.

AURRE-APRAIZ.

Ikus XXVII zenbakia.

AURRE, ANTON.

Biozkadak, XXVII zenbakia.

AZPEITIA, JULENE.

Ikus XXVII zenbakia.

AZPIRI TAR JOSE MARI.

Ikus XXVII zenbakia.

BASTERRETXEA JOSE (OSKILLASO).

Ikus XXVII zenbakia.

BEDIALAUNETA, SEGUNDO "Txori Erreka".

Ikus XXVII zenbakia.

BERRONDO, PEDRO.

Ikus XXVII zenbakia.

CABODEVILLA, YOSU.

Ikus XXVII zenbakia.

DORRONSORO, JUAN.

Ikusi XXVII zenbakia.

EGAÑA TAR GOTZON.

Aldian eta edestian barrena. XXXI.
Izkuntza Kultur Alor Baliotsu, XXXII
Pixu aundiko maxiaketa. XXXII.

EGIA, A.

Ikus XXVII.

ERKIAGA, EUSEBIO.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXABURU, JOSE MARI.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXABURUA, ASIER.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXANIZ, NEMESIO.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXEARRIA, JOSE MARI.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXEBERRI, MARI ELENA.

Ikus XXVII zenbakia.

ETXENAGUSIA, KARMELO.

Ikus XXVII zenbakia.

EXEA, JOSU.

Ikus XXVII zenbakia.

"Umandi"ren oroitzapenetan. XXVII.

"EUSKERAZAINTZA"

Euskaltzaindiari. XXIX.

GARATE, JOSE A.

Ikus XXVII zenbakia.

GARATE, GOTZON.

Bizkaiera. XXXI.

GARMENDIA ESNAOLA, G.

Ikus XXVII zenbakia.

GARMENDIA, TXOMIN.

Ikus XXVII.

GOIKOETXEA IÑAKI.

Ikus XXVII.

GOIKOETXEA J.

Iztuetaren langintza iztegiak. XXVI.

Erriari entzun eta bildutakoak. XXVII.

Erriari entzun eta bildutakoak. XXIX.

GOROSTIAGA, JUAN.

Ikus XXVII zenbakia.

IRIBARREN, JESUS.

Ikus XXVII zenbakia.

ITURBE, M.

Ikus XXVII zenbakia.

"KALAMUA"

Ikus XXVII zenbakia.

KEREXETA, JAIME.

Ikus XXVII zenbakia.

KORTAJARENA, ANDONI.

Ikus XXVII zenbakia.

ITURRIA, KARMEL.

Ikus XXVII zenbakia.

JAKAKORTAXARENA, TXOMIN.

Ikus XXVII zenbakia.

JEMEIN-OTARRI.

Ikus XXVII zenbakia.

KAREAGA, ANGEL.

Bariñako Armistei errotakuak. XXX.

LATIEGI, BIXENTE.

Ikus XXVII zenbakia.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran. 872'ko larruki bat. XXVI.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran, 872-873. Amaia. XXVII.

Kerexeta'ri erantzuna. Donostia itzaren A atzikiari buruz. XXVII.

Euskal izenak Erdiaroko idazkeran.— XXVIII.

Iru eskutitzei erantzuna. XXVIII.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran.— XXIX.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran.— XXX.

Arruazuko euskera dala-ta. XXIX.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran.— XXXI.

Euskal izenak erdiaroko idazkeran. XXXII.

H'ren auzia bukatzeko bidea. XXXII.

Erdiaroko euskal izenen idazkera.— XXXIII.

On Jaime Kerexeta'ren gutun bat. XXXIII.

Erdiaroko euskal izenen idazkera.— XXXIV.

"LATXAGA"

Euskara mestizua.- XXIX.
Euskal aditza noizkoa ote.- XXX.
Aita Erroman Beratarra eta euskera.- XXX.
Euskal sinismen zarraren jakintsua: Anes Arrinda Albisu. XXXI.
"Diario Vasco" izparringiaren il txartelak. XXXI.
Liburuak eta Idazleak. I. Zubiri, A. Kortajarena. XXXII.
Aditza Iñazio Larramendiren olerkietan.- XXXII.
Zigardeberea baserria euskal iturri.- XXXIII.
Euskal itzak Andola'n. XXXIII.
Augustin Zubikarai euskal idazleen artean erraldoia. XXXIII.
Paulin Solozabal Euskeraren urrezko langillea.- XXXIII.
Euskera ta erromatarra. XXXIV.
Arzelus tar Amale andereño idazlea. XXXIV.
Aita Onaindia Euskal olerkarien artean txapeldun. XXXIV

LEGARRETA, ASIER.

Ikus XXVII, zenbakia.
Santa Ageda, aintzinako Bizkaiko eran.- XXVI.
Mungialdeko banakako berbak.- XXVII.
Mungialdeko esaera zarrak.- XXVIII.
Jatabe'ko bertsoak.- XXX.
Berango'ko koplak zarrak.- XXXIII.
Zortzi nobioak.- XXXIII.

LEKEITIO'KO ARRANTZALEEN KOFRADIA

Ikus XXVII. zenbakia.

LEKUONA, MANUEL.

Santa Clara'ren kanta zar bat.- XXX.

MADINA, BINGEN.

Ikus XXVII zenbakia.

MALAXETXEBARRIA, YON.

Ikus XXVII zenbakia.
Esaera zarrak. XXVII.
Esaera zarrak.- XXXII II.

MARIJESIAK.

Ikus XXVII zenbakia.

MITXELENA, MANU.

Ikus XXVII zenbakia.

MUJIKA, ROBUSTIANA "TENE".

Ikus XXVII zenbakia.

MUNIATEGI, SABIN.

Ikus XXVII zenbakia.

OLABIDE, AITA.

Ikus XXVII zenbakia.

OLAZAR, MARTIN.

Ikus XXVII zenbakia.

Urrestarazu tar Andoni. XXVI.

Zubiri tar Iñaki'ren itzaldiari erantzuna. XXVI.

Solozabal dar. P.ren sarrera itzaldiari erantzuna.- XXVIII.

Euskalerrri euskalduna?- XXX.

Euskereara izkiak eta ikurak. XXXII.

ONAINDIA, SANTIAGO.

Ikus XXVII.

Amoroto jaietan. XXIX.

Guda ondoko Euskal Olerti gogoia. XXXI.

OÑATIBIA, MANU.

Ikus XXVII.

Erriaren esaldi jatorrak. XXVI.

Erriaren esaldi jatorrak. XXVII.

Erriaren esaldi jatorrak. XXVIII.

Erriaren esaldi jatorrak. XXIX.

Erriaren esaldi jatorrak. XXX.

Erriaren esaldi jatorrak. XXXI.

Erriaren esaldi jatorrak. XXXII.

Oiartzungo seme bat Zaragozan. XXXII.

Erriaren esaldi jatorrak. XXXIII.

Erriaren esaldi jatorrak. XXXIV

ORMAETXEA, NIKOLAS. "ORIXE".

Ikus XXVII zenbakia.

PUXANA, PEDRO.

Ikus XXVII zenbakia.

Iruzkiña. XXIX.

Bizkaiko aditza atzo eta gaur. XXX.

Bizkaiko Foru dala ta ainbat jakingarri. XXXIII.

Bizkaiko Foruaren lenengo itzulpena. XXXIV.

SUKIA, JOSE MARI.

Ikus XXVII.

SEGUROLA tar S.

Ikus XXVII zenbakia.

SOLOZABAL, PAULIN.

Ikus XXVII zenbakia.

Altzibar Aretxuluaga tar R.- XXVII.

Ume kontuak. XXVII.

Euskera izkuntza jatorra, jakintsu, ederra. XXVIII.

Etxebarria tar Bingen'egaz. XXIX.

Esaerak. XXX.

Esaerak. XXXI.

Esaerak. XXXII.

Aita Santi Onaindia Euskerazaintzako. XXXIV.

TALDEAN.

Euskaljerri euskalduna? XXXI.

UGALDE, MARTIN.

Ikus XXVII zenbakia.

URIGUEN, ZENON.

Esaerak. XXXII.

URKIZA, JULEN.

Aita Linoren idazlan guztiak. XXVII.

URRESTARAZU, ANDONI. "UMANDI".

Ikus XXVII zenbakia.

Goi Yakintza. Sorkaridia. XXVI.

Z izkiaren betekizun bat.- XXX.

Olagizon eta burniaren abestia.- XXXI.

URRETA, M.

Ikus XXVII zenbakia.

YURRAMENDI, FELIPE.

Ikus XXVII zenbakia.

ZAVALA, ANTON.

Ikus XXVII zenbakia.

ZATARAIN, ANBROSIO.

Ikus XXVII zenbakia.

Itz elkartuen osaera eta idazkera. XXVII.

Euskeraren batasuna. XXX.

Euskera irakasketan. XXXI.

Mila pesetako papera. XXXI.

Gure Aita. XXXIII.

Duen eta duen. XXXIII.

ZUBIKARAI, AUGUSTIN.

Ikus XXVII zenbakia.

Euskerazaintza ta idazleak.— XXVII.

Liburuak. XXVII.

Iztegi jatorrak aztertzen.— XXIX.

Antxoa eta itxas errietako esaera batzuk. XXXI.

Solozabal dar Paulin.— XXXII.

Berbarri, izperri, neologismoak. XXXII.

Amale'ri erantzuten.— XXXIII.

Aita Santi Onaindia.— XXXIV

ZUBIRI. IÑAKI.

Ikus XXVII zenbakia.

Lauaxeta olerkari.— XXVI.

Z, Az, Gaz) eta)-ekin-rekin). XXVII.

Zubikarai tar Augustin

EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKEREA

Ume txikien berbakerea esaten dogunean, eurok darabilezan berbak dira ala umetxuenganako nagusiek darabilezanak? Biak dira izan.

TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.
AMA LEGEZ,
AMAMA LEGE,
AITITA LEGEZ.
TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.

(oinez ibiltzen ikasten dagoan umetxuari lagunduteko abestitxua dogu au)

Bizkaiko euskerea galduten doan ginoan, erderean sartu ta sartuten jaku, geroago eta sakonago sartu be. Erdeldunduten joaku, bada bizitzea Bizkaian. Galtze onegaz batera eundaka esakera berba eta adierazpide joakuz betiko.

Au berau, batez be, ume jaiobarri eta urna txikien munduan jazoten da, mundu onen berbakera berezia ia galduta dogula.

Umetxua bera etxekeogandiko artuemonetan eta, batez be, amaren eskutik sartuten da berbaldunen munduan. Beingo baten asiko da umetxua beste doinu eta zaraten artean amaren agotsa ezagututen. Leenengo ta bein, berbak eurak baino, beroneen doinuak ezagutuko dauz. Orregaitik, umezaroan umetxuokaz erabilten doguzan berbek eta berba antzeko zaratek garrantzi aundia dauke.

Berbetan asi baino leen, doinuak egiten dabez umetxuek. Beluago, berba antzeko doinuak egitera elduten dira, nagusiek eurek erabilten dabezan berben antzeko berbak egiten aaleginduko dirala. Nagusiek darabilezan esangura bardinak bilatu guran, aurki. Esaterako:

TA-TA: 1 aita
2.- tas-tas

Esangura ezbardin bi, beraz.

Olan bada, umetxua nagusiarenak esaten aaleginduko da eta onek berba barriak edota zarata barriak asmatutea eta ikastea dakar. Izan be, urna txikiek erabilten dabezan leenengo berbak nagusiengandik ikasten dabez beti eta. Umeak zer ikusi, a ikasi. Denporearen joanean, berba oneen arteko asko ta asko nagusien berbakerako egin dira.

Umea txikerra dan artean, esaldiak egiterakoan beintzat, irugarren pertsonen bidez baino ez jako egiten berba, esaterako: "zer ekarri deutso aitak seineri?": "nori egin deutso barre seinek?"... Geienetan, aditzak ez dira jokaiten.

Orain ogei urterik leenagora guztiz oidalakoa zan ume txikien berbakune au. Bizi-bizirik egoan gure etxeetan eta seintxuek leenengo oinkadekaz batera ikasten eben. Gaur egun, Bakion erabilera au, arean baino baztertuagoa, II bearrean dago, zoritxarrez. Baina ez ori bakarrik, erdereak bereak sartutea lortu izan dau. Nork ez dauz erri onetan, bada, oraingo ama askoren ezpaltan onelangorik entzun: Kariñiito!, Tesooro!..., seinetxue!, laztanaa! edo pitxiin! oneen ordez?

Eskolara artekoan, etxean ikasiko dau umetxuak berba egiten. Aurrean aitatutako berbakera ori etxean bakarrik ikasi leiteke eta. Orrexegaitik, gaur eguneko ume txikiokaz euskeraz egitea garrantzi aundi-aundikoa bada be, umezaroan ume-berbakune dalako ori erabilteak geroko umeen euskerea sendotutea dakar.

Orduan bada, umetxuekaz berba edo berba antzeko orreek erabilten ikasi daigun. Onetarako ondoan BERBALAPIKO laburra dakartsuegu. Ziur gagoz berbotatik asko be asko ezagunak izango dozuezana eta batzuk, bear bada, aaztuta. Ikasi eta erabili eizuez, bada! JAGOIZUE BIZKAIKO EUSKERA EDE-
RRA!!

TXALO PIN TXALO
TXALO PIN TXALO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO.
BADAGO BEGO,
BEGO BADAGO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO,
BEGIRA DAGO.

(ume txikitxuei txaloak egiten irakasteko erabilten dan abestitxua)

BERBALAPIKOA (umetxuena)

ABABAU= txakurra/txakurrak egiten dauan zaratea (AU-AU).

ABO-ABO = loak artuteko umetxuari esaten jakona.

ADUR-DARIO = adurtia, ezpan ingurua beti adurrez bustita dauan umetxuari esaten jako. (Bardin: **MOKO-DARIO, KAKADARIO...**).

AIAlA= kalea.

AIAlAN (joan)= kalera joan/ibiltzen joateko esaten jako.

AI DA-AI DA= idia, beia, zekorra eta.

AI NGERUTXU= laztana, seina, maitasuna adierazoteko.

ALALA= ondotxu, naiko ondo.

ANDI-ANDI (joan, egin)= etxetik kalera ibiltzen joateko orduan.

AP!= otz-otz dagoan zeozer ukutukeran/norbera bustikeran.

APA= abereren baten edo nonoren altzoaren ganera igonkeran edota besoen artean artukeran esaten jako.

APAPA= kalea.

APAPAN (egin)= ibiltzen joateko esaten jako umetxuari/umetxuak anka egin dauanean esaten jako.- (**ATATAN**).

APATXE (egin)= jesarri/jesarterakoan esaten jakona.

ARGIZARIZKO= azal leun eta zuri-larrosa dauan umetxuari esaten jako.
ARRETXIKOTAN= umetxua lepo ganean eroateari esaten jako.
ARROTZA-GORRINGO= kontu aundiz jagon bearreko umetxuari esaten jako.

ARROTZA-JANGO= arrautza jalea danari esaten jako. (Bardin: **FRUTA-JANGO, OGI-JANGO**).

ASTOKO= astokiloa, burugogorra, astokeriak eginkeran esaten jako.

AUPA!= umetxua jesarrita edo etzunda dagoan tokitik goratukeran esaten jako. (APA!).

BABITU= garbitu.

BAPO= ederra, galanta/umetxuak jaten amaituten dauanean esaten jako.

BARRABAN= biurria, okerra, gaiztoa.

BEGIZURI= begi urdin argiak dauazan umetxuari esaten jako. (Bardin: **BEGIBALTZ, BEGIEDER, BEGIANDI...**).

BEKEREKA= ardia, bildotsa, arkumea, artxoa eta. (BEKEKE).

BILI-BILI= aatea.

BILIN-BOLA= txirrinbueltea, bilinbueltea, itzulipurdia.

BILIN-BOLAKA= bilinbuelbaka, txirrinbuelbaka, itzulipurdika.

BIORRI= biurria, okerra, gaiztoa.

BIS-BIS= katua/katuari deituteko egiten dan zaratea.

DILIN-DALAN= kanpaia/kanpaiaren zaratea.

DIN-DAN= danbaladaka, zabuka, bilinbalan/txiboan ibiltea.

DINGILIN-DANGALAN= mogimendu aundiz ibilkeran/errenka dabilen urnetxua/burdiaren trangeladak.

DROGOSO= biurria, okerra, gaiztoa.

EIÑ= egin.

ERDU!= etorri aite!, atar!

ET= ez/kontuz! esateko.

ETETET= ez, ez/kontuz, kontuz! esateko.

FIRI-FIRI= gatza apurka-apurka ete gitxi-gitxika botakeran esaten da.

FU= sua/eguzkia gorri-gorri dagoanean esaten jako umetxuari.

FU (egin)= putz egin (suren bat amatateko).

GAUTXORI= gauzez itzartuta egoten dan umetxuari esaten jako.

GIZONTXU= beste mutil txikitxu bat umetxuari erakusteko esaten jako.

IÑUZENTE= kokoloa, ganorabakoa, umetxuari gozoro alan esateko.

IZTERKULUKA= umetxua nagusi baten oin baten ganean jesarrita, izterrak zabalik daukazala, bilinbalanka dabilenean.

JAKAN= jan txarrekoa dan umetxua edo gitxi jaten dauana.

KAKA= gorotza, satsa loikeria guztiak, berak ukutu ez daiazan esaten jako umetxuari. (**KAKELA**).

KAKELO= saskela, saskeldoa, Ida umetxuari esateko.

KAUSK (egin)= aginka egin, kosk egin.

KIKI= umetxuari bekoki ganean uleez egiten jakon kiribiloa/agina.

KIKI (egin)= ostuka ibili/ostuka ibilkeran esaten jako.

KIKIL= zakila (KIKILIÑO).

KILI-KIKI (egin)= kili-kili egiten jakonean esaten da.
KILI-KOLO= kili-kolon, askatuta, loka, zeozer loa dagoanean.
KISK-KISK (egin)= ulea moztu edo ebagi.
KISKI-KASKA= umetxua jokeran esaten jakona. (KISKA-KASKA).
KOIPEGAZA= mainatsu, maina andiak dauazan umetxuari esaten jako.
KOKO= mamarro txikia/txokolatea/arrautzea/umetxua ikaratu egiten dauan gizonkia.

KOKOLO= ganorabakoa, inuzentea, umetxuari goxo-goxo esaten jako.

KOKOLOBATXI= kokolotxua, kokolo esatea baino samurrago esaten jako.
(KOKOLOMENDI).

KOKOMARRO= mamua, ume txikiak ikaratuteko aitatuten jaken gizonkia.

KOSKON (egin)= umetxuari kokoteko txikiak buruan emon.

KOXKOR= txikitxua, eldua ez dana.

KUKU (egin)= umetxua ostenduta dagoan lekutik zeozereri begiratu deion edo begiratuten deutsonean esaten jako.

KUKUBARRE= umetxuak edonori barre egiten deutsonean edo egin bear deutsonean esaten jako.

KUKUKA (egin)= burua lantzean bein ataraz kuku egiten dauanean esaten jako.

KUKULUMIO= makurtuta, kokoriko, orpoen ganean jesarrita dagoanean.

KUKURRUKU= oilarra/oilarrak egiten dauan zaratea.

KURRA-KURRA= oiloa/oiloari deituteko berbea.

KUTTUN= laztana, seiná, aingerutxua, umetxuari maitasuna adierazoteko berbea.

LAU-TXAKURREN= umetxuak eskuak eta oinak bearen ganean dauazala ibilkeran esaten jako. **(LAU-TXAKUR).**

LAZTAN= seiná, aingerutxua, umetxuari gozoro esaten jako.

LO KUKUAK= lotaldi laburrak egiten dauazanean.

LOLO= loa.

LOLO (egin)= lo egin.

LOLOTAN (egon)= lo egiten egotea.

LOTI= lo asko egiten dauan umetxua (bardin: **NEGARTI, TXISETI, KAKATI, ADURTI, MAÑATI...**).

MA (egin)= musua emon.

MAMA= ura, esnea edota edozein edari.

MAMALABATXI= mamalatxua, neskei gozoro esaten jakena.

MAMATXALATXU= umetxuari mamala esateko (neskatilei).

MAMELO= gozokia, karameloa.

MAÑAK (egin, euki)= negar egin.

MAÑU= mamua, umea ikaratuteko erabilten dan gizon antzekoa.

MASUSTATXU= kokolotxua, neskatilei gozoro esaten jake.

MAU= jan/agokada edo koputxuren bat jan daian agoan sartukeran esaten jako.

MIRRI= argala, txikerra, makala/jan txarrekoa.

MITXIN= katua.

MIXOR= pirria, beterreá, erretxinea, eroan txarreko edo aldixarreko ume-txuari esaten jako.

MIX-MIX= katua/katuari deituteko erabilten dan zaratea.

MIZKIN= jateko orduan, mizkeriak otordua bera baino gurago dauazan umetxuari esaten jako.

MOSOLO= baketsua, barea, otzana/matrailgorridun dan umetxua.

MUSU -GORRI = matrailgorridun dan umetxuari esaten jako.

MUSU -MERKE= edonori musuak emoteko beti gertu dagoan umetxuari esaten jako.

MUXE (artu)= asarratu/bekoki iluna egin edo jarri.

NANAN (egin)= jan.

NENE= esnea.

NONO= beia.

OGI BEDEINKATU= ona, baketsua, arazorik emoten ez dauan umetxua.

OGI KUXKURTXU= txikia, biguna, goxoa, umeari esaten jakona.

OGI ZATI= ona baino ohea dan umeari esaten jako.

OKER= biurria, barrabana, gaiztoa.

OLLANDATXU= nagusien antza eta ibilkerak dauazan neskatilea.

PA= musua.

PA (emon, egin, bota)= musua emon, musua bota.

PAPA= ogia.

PAPATA= oinetakoa.

PAPAU= zeozerez burua edo begiak estalduten jakozala, umetxua bildurtuteko erabilten dan berbea/ikaratuteko keinuak egiten jakozanean/mamua/umetxuari kokolo esateko.

PAPAUTEN= ilunetan.

PAPURRAK= ogi-zopak jaterakoan ago inguruan geldituten diran ondakinak.

PARRA -PARRA= euria bota aalean eginkeran.

PATA-PATA= oinez ibiltzen dala esaten jako umetxuari.

PATXALASA= neskatilei gozoro esaten jakena (PLAUSTA).

PEPELO= kokoloa, memeloa (PEPELERDO).

PERIKO= txiz-ontzia.

PIPI= txoria/zorri-bartza.

PIRRI= beterrea, erretxinea, mixiorra, eroan txarreko edo alditzarreko umetxuari esaten jako.

PISPOTA= neskatilei gozoro esaten jakena.

PITI -PATA= oinez ibilkeran esaten dana.

PITXI= olgetako balio dauan edozein txikikeria, jostailua/gauza polita ta erakargarriari buruz berba eginkeran esaten da.

PITXILIN= zakila.

PITXIN= lastana, kutuna, aingerutxua, goxoro esaten jakonean/txikitxua.

PITXITXI= txakurra (PITXITXU).

PLAUSTA= zeozer bearen ganera jausikeran esaten da, umetxua bera beizan leiteke.

PLISTI -PLASTA= uretan, basatan... gogotsu ibilkeran egiten dan zaratea/urazalean eskuaz jokeran egiten dana.

POPOLO= lodikotea, potoloa.

POPOT= autoa.

POTIN -POTINTXU= potoloa/anka okerdunaren ibilkerea.

POTOLO= popoloa, lodikotea, loditoa.

POTONGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa geienetan.
POTXINGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa geien baten.
POTXOLO= gozoa, samurra/polita/laztana, aingerutxua, kutuna.
POTXON= umetxuari gozoro esaten jakona.
PUN (egin)= jausi/jausikeran egiten dan zaratea/jausia.
PUNBA= jausia (**PAUNBA**).
PUNBA (egin)= bearen ganera jausi.
PUNBALA= zeozer edo nonor jausi dala esateko, umetxua bera be tartean/jausia.
PUPU= mina/zauria/urruturea.
PUPU (egin, euki)= min egin edo euki/urritu/min artu.
PURRA= oiloa.
PURRUT= uzkerra.
PURRUT (egin)= uzkerra bota.

RAPA-RAPA= arin-arin joatean edo ibiltean esaten da.

SAPA-SAPA= arin-arin joatean edo ibiltean esaten da.
SAPARRO= umetxua bera/beste umetxu txiker bat.
SASKEL= loia, saskeldoa, zikina.
SASKELDO= loia, zikina, saskela esatea baino samurragoa.
SASKILI - BASKILI= jankeran gauzak aurrerik ara edo goitik beera botaten diranean esaten da/gauzak laskitukeran esaten da.
SEÑE= ume txikia/laztana, aingerutxua umetxuari esateko.

TAKA-TAKA= oinez ibilateko edo ibiltan dala, esaten jako umeari.
TALAN - TALAN= kanpaia/kanpaiaren zaratea.
TALE (egin)= jo.
TAPA-TAPA= oinez ibilteko edo ibilaten dala, esaten jako umeari.
TAS-TAS= nonor jokeran esaten da/umetxuak eskuak zabalik daukazala joteke keinuak egitea.
TAS-TAS (egin, emon, artu)= jo, zigortu, eperdikoa emon edo artu.
TATAN (egin)= laztan egin.
TATANTXU (egin)= laztan egin.
TATI (egin)= umetxuari gauzaren bat eskeini eta artuten doanean kendu, olgeta lez.
TATO= jauzia, saltoa.
TATO (egin)= jauzi egin/jantziak janzkeran umetxuari besoak eta anakak zulo-etatik sartuten lagunduteko esaten jako/jatsi.
TERRALA (artu)= umetxuak negarraldi zaratsua egiten dauanean.
TETE (egin)= jo.
TIKI-TAKA= oinez ibilteko edo ibiltean esaten jako umetxuari.
TIPI-TAPA= oinez ibilteko edo ibiltean esaten jako umetxuari.
TIRRIN= txirrina/zila, zilbor estea ebagikeran lotuten dan zulotxua/umetxu negarti eta gogaikarriari esaten jako.
TIRRIN-TARRAN= dandarrez, narraz ibilkeran.
TITI= bularra/titia artutea.
TOTO= txakurra/seina, umegorria.
TOTONOXO= txakurkumea.
TRAKATAN - TRAKATAN= belaun ganean umea jauzika dagoala, zaldi ganean balebil lez, esaten da.

TROKOLO= txaparroa, zabalotea.

TUNTURRUNTAINA (artu)= muxe artu, asarratu, bekoki iluna egin.

TURRU-TURRU= ganezka pilotu.

TXAKA-TXAKA= oinez ibilkeran esaten jako/arín-arín ibili.

TXAKALA-TXAKALA= trenaren joana.

TXALO= belarriondokoa, matrailekoa, plastadea.

TXALO-PIN-TXALO= eskuak bata besteaz jokieran egiten dan olgetea/txalo egitea.

TXANBELIN= dotorea, polita, lerdena, gozoro esaten jako neskatileari.

TXANKAME= anka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKA-PISTOLA= anka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKIRRI= neskatilei gozoro esaten jakena.

TXANTXAN (egin)= dantzan egin (jantzan egin).

TXANTXUR= esne agina, umearen leenengoetariko agina (**TXATXUR**).

TXAPARRO= umetxua bera/beste edozein ume txiker.

TXAPISKOLA= bizia, okerra, bizkorra, biurria, neskatileari gozoro esaten jako.

TXARRITO= saskela, saskeldoa, loia, esaten jako umetxuari.

TXATA= sudurra.

TXATXA= sagarra, madaria edo antzekoa dan bestelako frutea/ozta-ozta oinez egiten dakian umetxuari esaten jako.

TXATXUR= esne agina, umearen leenengoetariko agina.

TXERA= umetxuak laztandukeran egiten dauan egordia, igortaldia.

TXERATSU= txerak, laztanak egitea eta artutea gogoko dauana.

TXERREN= barrabana, ikerra, biurria.

TXETXE= ume txikia/ispiluan umetxuak bere burua ikusikeran esaten jakona (**TXETXITO**).

TXI= erre (**TXIT**).

TXIBISKERIA= jostailu txikiak, ezgauzak/gauza txikerrak.

TXIBO= zugatz baten adarretik dingilizka, danbaladaka ibilateko, eskegiten dan sokea (kolunpioa).

TXIKER= txikia (TXIKIÑA).

TXIKI-TXIKI= txarriari deituteko egiten dan zaratea.

TXIKIÑA= neskatileari gozoro esaten jakona.

TXIKON= lepo ganean umetxua eroankeran, arretxikotan.

TXILIBRISTO= mutilei gozoro esaten jake.

TXILIN= txintzarria.

TXILIN-TXALAN= kanpaiek ataraten daben zaratea/umea bilinbalanka aidean erabilkeran esaten da.

TXIN= dirua/txanpona.

TXINTX (egin)= zintz egin, sudur zuloetatik mukia atarateko aizea botakeran indarra egin.

TXIN-TXIN= dirua/txanpona.

TXIN-TXIN-KOSKON= umetxuari olgeta antzean esaten jako bein ta barriz, **TXIN-TXIN** esateaz batera kilikiliak eginez eta **KOSKON** esateaz batera buruan joatearen itxura eginez, kokoteko txikitxuak emoten jakoz (beste orrenbeste **KISK-KISK KOSK-KOSK** berbea erabiliz).

TXINTXIRRI= umetxua negarretan isildu edo baretu daiten nagusiak esku-tan eragiten deutson txintzarri antzekoa/umetxua isildu daiten nagusiak zarata ori agoz egiten dauanean.

TXIO-TXIO= txoria.

TXIO-TXIORRA= txoriak abestuten dagoanean egiten dauan doinua.

TXIPLI-TXAPLA= uretan, ur azala jokeran egiten dan zaratea.

TXIPOTIN= potinatxua, potxingo txikia/umetxu txikia, txaparroa.

TXIRINBUELTA= bilinbueltea, bilin-bolea, itzulipurdia.

TXIRIPILLOTA= neskatilatxuari esaten jako/neskatilatxua.

TXIRIBORRO= naaste-borrastea, naastea/paperearen ganean umetxuak egiten dauan marrazketea.

TXIRRIN= txirrina/zila, zilbor estea ebagikera lotuten dan zulo txua.

TXIRRI-TXIRRI= kilkerria, kirkiloea/ur xirripea, ur txirristatxua eta bere doinua.

TXIRTXILLERIA= gauza txiki ugariari esaten jako/umeteriea, umesaila, umetxuak batera egoteari esaten jako/uskeriak.

TXIS= garnua, txiza/txiza egiten danean sortuten dan zarateari esaten jako.

TXISTU= zakila (PITXILIN).

TXITAN (egin)= zutundu edo oinez asten danean mugituteko esaten jako umetxuari.

TXITAN-TXITAN= umetxua zutundukera eta mugitukera esaten jako.

TXITXI= okelea, arraina, jatekoa/txakurra.

TXITXIMARKA= atzamarkadea/min egiteko atzamarrez aragia bihurtukera esaten da.

TXITXIRIBITXI = gauza txikiak/txirtxileriea.

TXOLINTXU= polita, alaia, lerdena dan umetxuari esaten jako.

TXONBO= uretan buruz beera murgildukera esaten da.

TXOR-TXOR= txorien txio-txioa edo doinua/amaibako berbeteari esaten jako, umetxuak lotu barik berba egiten dauanean.

TXORI = neskatileari buruan ipinten jakon troinuari esaten jako.

TXORTA= uleez egindako matazea/txirikordea, au da, uleak ondo orraztuta eta batuta dagozala ule mordo osotzen dabenean.

TXOTXO= txo/mutiltxuari esaten jakona.

TXOTXOBARIKU= kokoloa, kokolomendia.

TXU= txistua botatean olantxe esaten jako umetxuari.

TXURRU-TXURRU= zurrutada txikietan edatea/umetxuak tititik dzangadea artuten dauanean egiten dauan zaratea.

TXUT!= bero-bero dagoan zeozer ukutukera/sargoria, aro beroa dagoanean/norbera errekeran esaten dana.

TXUTXU= erakargarria danari esaten jako.

UFA-UFA (ibili)= uretan ibili (**UFA-UFAKA** ibili).

UMEGORRI nagusi keinuak egiten duazan umetxua (**UMEKONDO, UME-MOKO, UMESOSTOR**).

ZEZENKO= umetxu indartsua, astokilotxua.

ZIZIPOZO= S-aren orde ez espainerazko Z esaten dauan umetxuari esaten jako.

ZURIKERIA= umetxuak zeozer lortu gura dauanean egiten dauazan txotxolokeriea.

LOTXU EGAINADORE,
FALTSO, TRAUDOREA!
LOTXUK ENGAINAUKO DAU,
BAI, GURE UMEA!

(Arabako Aramaioko umeentzako lotarako abestia)

Zuk, irakurle, entzungo edota erabiliko zenduzan oneetariko berba asko. Beste asko be egon badagoz gure zaarren ago-minetan. Olako beste berbarik jakingo edo entzungo bazendu, guri esatea biotzez eskertuko geunskizu. Batu eizuz, bada, eta esan eiguzuz!

Iniaki MARTIARTU
1996.eko zezeilan

BIBLIOGRAFIA

- MARKAIDA, E. Umeen hizkuntza eta lexikoa - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKAIK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.
- GAMINDE, I.- Umeen berbak dirala-eta - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKIAK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.
- GAMINDE, I. Urduliz inguru berbak eta bizimodu - 1992.
- GAMINDE, I.; MARKAIDA, E. ta B. - Sopolako euskaraz - URDULIZKO EUSKERA TALDEA - 1993.
- ARGOITIA, AZKARATE, GEZURAGA - Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk - EIBARKO UDALA - 1995.
- GAMINDE, I., SALTERAIN. M. - Abadiñoko lexikoaz - ABADIÑOKO UDALA - 1992.
- ARRETXE, J. - Basauriko euskara - BASAURIKO UDALA - 1994.
- PEREZ BILBAO, A. - Bermeoko herri hizkera - 1991.
- VILEGAS, J. - Nire biotza - LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA - 1978.
- LEKUONA, M. Idaz-lan guztiak - 2. LIBURUKIA, EUSKAL ETNOGRAFIA - 1978.
- LEKUONA, J.M. - Ahozko euskal literatura - EREIN - 1982.

Gure GAIAK

EUSKERAREN BATASUNA

Asko dira Batasunaren gorabera jakin miñez agertzen diran euskaldunak.

Noiz? Zelan? Zegaitik?

Onetan, iñok argi emotekotan, Euskaltzaindiko lendakari urte askotan izan zan On Manuel Lekuona berberari utziko diogu erantzuten.

Ara ber LANEN BILDUMA-tik zeatz-meatz jasotakoak.

EUSKALTZAINDIAREN **50 URTEBETETZEA** EUSKERAREN BATASUNA

Jaun eta andreak:

Euskaltzaindiari, aurten, bere 50'gn. urte-betetzearen arlo ta zeregin berezi bezela, Euskeraren Batasuna eratu dezala eskatu zaio.

Urte onen lenengo Batzarrean izan zan. Bilbao'n. Orain 50 urteko Oñati'ko euskaljaiak gogoratzean, urgazle Jaun batek egin zuan eske ori.

Bilbao'ko Batzar artan, aurten Oñati'n bertan jai berezi batzuek eratzea erabaki zan —jaiak ez baño, estudio-egun batzuek obeto—; eta geroztiko gure Batzarretan, batasunaren gai ori erabilli da eten-gabe.

Aizkenik, Uzta-illean, euskalidazleen batzar bat egin da Ermua'n, batasunari dagokion zenbait gauza erabakitzeko; eta, an batzartu diran idazleak ere —geienak bederenik— eskabide bera egin-edo diote gure Euskaltzaindiari: batasuna eratu dezagula, alegia, batasuna eratzeko zer-egia gure gain artu dezagula.

Bitarte ortan, gure illoroko Batzarretan, gai onen zenbait gauza obeto aztertu dira, eta aien artean au batez ere: batasuna nola «aditu» bear dan: noraño egin bear dan, zertan, zer salletan; eta guztion iritzia izan da, batasu-

na idazleen artean, idazleentzat egin bear dala: idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain arte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-idaztietan (ez Olerkietan, eta Nobelistikan, adibidez; ortan idazleak azke gelditzen dirala, bakoitza bere erara). Itz bitan: batasuna, bi gauza oietan: a) aldizkarietan («Zeruko Argian», «Anaitasunean», «Yakin'en», «Jaunaren deian», «Laiaketan» etab. etab.); eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab., d) Liturgiaren zenbait zatitan...

Gauza oiek ondo neurtzeko, berriz, Batzar oietako batean, batzorde berezi bat izendatu zan; eta batzorde orrek, neurri oiek ondo mugatzeko, Mitxelena Jaunari eman zion, txosten on bat egiteko agindua. Eta geroztik Mitxelena Jaunaren babes seguruan izan ditu batzordeak zenbait billera, Mitxelena Jaunaren txostena guztion artean aztertzeko.

Txosten ederra eta ondo pentsatua, gure Euskaltzain-lagun Mitxelanarena; onarri orokar batzuen ondoren —ikusiko zenduten— gramatika-auzi guztiak ukitzen ditu ederkitxo: asi Foretikatik eta Morfologian zear, Ortografiaraño.

Eta aizkenik, batzordekoen artean txosten-zati bakoitzerentzako «ponenteak» izendatu ondoren, amaitu du batzordeak bere lana, eta gaur dana zeurok ikusi eta arakatu ta aztertuko dezute, gai bakoitzean bakoitzak bere iritzia garbi esan dezan eta ola eratu, mugatu eta atondu, guztiok nai degun batasuna.

Orra, bada, itz gutxitan arazo onen edesti ta historia.

Orain, etorri zaizkigun ponentziak eta bakoitzak ekarri lezazkeanak, aztertzen asi baño leen, batasunari dagozkion gogora-bear batzuek gogorazi nai dizkitzuet nik emen.

Eta lenengo, Euskeraren batasuna egitea, lan zalla dala, lan gaitza, Euskera, izkuntza ugaria da, bai lexikoan, bai aditzaren jokaeran. Eta ugaritasun ortan, aukera bat egin bearra dago, batasuna lortzeko. Lan zalla. Zer artu? zer utzi? Irizpide on bat erabilli bear... «Bereizten gaituana utzi»; «guztiontzat berdintsu dana, artu». Bañan zer da, berdintsu dana? nun dago? Mitxelena Jaunak lan luze ta zabala egin bear izan du, ori erabakitzeke. Eskerrak berari.

Bigarren —eta au ez da ohea— Euskeraren batasuna egitea, lan mingarria dala. Gure Izkuntza aberatsa, pobretu egin bear; eta orrek, nai-ta-nai-ez, min ematen digu, Euskera dan bezela maite degunoi. Bakoitzak txikitandikan bizi izan deguna utzi, cta besterena artu bear; eta orrek ere min ematen digu.

Ala ere, min oiek gora-beera, egin-bearreko lana, batasunlana. Ebaikuntza bat, operazio bat egin bear danean, min izaten da; bañan operazioa, egin-bearreko gauza izan oi-da askotan, biziari laguntzeko, bizirik irauteko. Operazioak gorputza itsusi uzten du; eta ala ere, egin egin bear. Besoa moztea, gorputza beso-bakar, basamotz uztea da; bañan, egin bear danean,

naiz-ta beso-bakar gelditu, egin egin bear... «obe bait-da —Jaunak dion bezela— beso-bakar ta begi-bakar *bizi*, bi beso ta bi begidun il baño»...

Euskera biziko bada, batu egin bear, beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear... abizitza dezan, eta ugariago dezan»; indartsuago dedin, alegia, errextuta, laburtuta, batuta, geiagok eta geiagok mintza dezan...

Maastia ere, iñastu, kimatu bear izaten da. Aien geiegi atera oi-ditu urtearen buruan; geiegi ori, moztu egin bear zaio maats-ondoari, maats-mordo mardulagoak emango baditu... Min izango zuan iñolaz ere lenengo maastilariak, aien-mozte ori egin bearra, bañan min protxugarria.

Berdin gertatuko da gure Euskeraren maastiarekin ere. Fruitu ugariagoak emango ditu.

Bañan au ere gogora bear degu. Euskera batutzea ez dala naikoa izango. Euskera batutzea ez da panazea bat euskeraren problema guztientzako. Euskera batutzea, euskeraz errezago ta ugariago mintzatzeko da. Bañan batu ta guzti, guk mintzatzen ez badegu, berdin-berdin ilko zaigu. Eta ola, gura batasun-lan guztiak alperrikakoak izan ditezke. Ez dedilla olakorik gerta.

Bukatu baño leen, beste zer bat, eskabide bat guztioi.

Oñati'n gaude: oñeztar eta ganboarren lur jatorrean... Ez gatzazkiela, gure arbaso makur aien urratsai jarrai iñolaz ere. Ez gatzozela Arantzazu'ra, batzuek oñeztar eta besteak ganboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, beste irizikoen aurka gudatzeko prest. Dezagula pake, dezagula batasun —biotzezko batasun— gure BATASUNARI BURUZKO eztabaiak asterakoan. Eta pake ortan jarrai dezagula, eztabaidak dirauten ade guztian. Eta berdin gero ta gero ere.

Arantzazu izan dedilla orain ere, leen noizpait bezela —orain bosteun urte bezela— guztiontzat pakezko lokarri Euskeraren alde.

Eta onenbestez, eskerrak Arantzazu'ko fraide frantziskotarrai, iru egun oietarako ematen diguten aterpearen alde. Eta beste gabe, guztiok ondo etorriak zeratela.

NERE DESKARGUA

Euskaltzaiñok:

Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitartean zenbait gora-beera izan degu Euskeraren problematikan. Egoki izango da, gora-beera oiei buruz nik nere deskargotxo ematea.

Urte bi dira, Bilbao'n egindako, Ilbeltzeko Batzarrean, Euskaltzaindiaren berrogeitamar urte betetzearen gogoangarri zerbait berezi egitea erabaki zala. Asmo bat batez ere artu genduan danok orduan: urtearen barruan Euskeraren batasunari buruz zerbait saio eratzea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan, bañan baita kontuz egin bearrekoa ere, batasun-eratze ori. Gogoan izango dezute noski guztiok, Batzar artan bertan Arrue Jaunak esan zuana: «Euskaldunok, olako gazetan aanarkixta

xamarrak» gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan bezela, *por decreto* egiten asten bagiñan, orixe naikoa izango zala jendea kontra jartzeko».

Xenpelar bertsolariak esan zuana:

«Gaitzak gerala umiltzen
eta pekean unitzen».

Neronek ere gauza bera esan nuan, Arantzazuko Batzarreko Sarrera-Itzaldian, Oñeztarren eta Ganboarren arraixkua aipatu nuanean.

Arazo ontan arraixku ori baztartzea izan da nere ardurarik aundiena, urte ta erdi ontan. «Por decreto ta diktadoreki gauzak egitea galerazi: orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dedan.

Arantzazu'ko Batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izugarrizko pozez asi ziran, ango, Mitxelena Jaunaren erakutsien «conclusioak» mundu guztiari ezarri bearrez. Ezartze ori, eta batez ere presaka ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori inolaz ere galerazi bear zan. Nik ortara jo det batez ere, nere alegin guztiaz. Presaka ez da ezer onik agiten auzi auetan. Mitxelena Jaunaren iritziaz gaiñera, baste iritzi geiago ere entzun bearra zegon. Ortarako beta artu bear da. Ponpeo Fabra'k katalanaren batasuna egiteko, amar urteren epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, arriaren plebiszito praktiko bat lortzeko.

Gure artean —esan det— alderdi batekoak bereala asi ziran, beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gaiñera, Euskaltzaindiak Arantzazu'ko conclusio aiek guztioi ezartzea, guztiok artera beartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan, bestelakoa izan da: Ponpeo Fabra'k bezela, itxedon, erriaren postura ikusi arte; diktadurak baztartu; utzi guztioi itz-egiten.

Ni bildur nintzan bezela, Arantzazu'n bertan azaldu ziran bi alderdiak: Oñez eta Garlboa. Etzan arritzeko, an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran; garratzxoak, al derdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztartu egin zan, gai zailtxoa zala-ta; baiñan ori bezain zaila dan Hren gaia ukitu zan, gai teoriarre Mitxelena baten eskuetarako; baiñan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— dirala, Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik-goizerra ezartzea... Gauza zalla benetan... Eta bereala etorri zan, ni bildurtzen ninduana: Oñaz eta Ganboa. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin? Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak «neutral» izan bear du olako auzietan; eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian.

Euskaltzaindiaren egitekoa, auzi ontan, guztiontzako alkarizketa-giro bat sortzea da: alkar-izketa-giro paketsu bat sortu. Auzi zalla dan ezkerero, utzi guztioi itz-egiten; entzun guztiona.

Arantzazu'n alderdi baten itza entzun zan batez ere. Baste alderdiarenak are entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da —diot berriz ere— nere ardura urte ta erdi otan.

Batzuren batzuek Euskaltzaindiak gauza bereala zirt-edo-zart erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik. Ponpeo Fabra'k —leen erc esan det-eta— Katalunian amar urteko epea eman zuan. Eta amar urteren buruan balantze bat egin, erriak zertara jotzen zuan.

Bide luzea dala? Sobra dakigu. Bañan gauzak diran bezela artu bearra dago. Bereala ta «por decreto» gauzak egiten asteak, ba dakigu zer dakarren: Xenpelar'ena:

«Gaitzak gerala umiltzen».. .

Arrue Jaunak esan zuan. Bañan ez Arrue Jaunak bakarrik; Mitxelena Jaunak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere conclusioak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri, ez. Arau batzuek eman, ori bai. A. Villasante'k itz bitan esan zuana: Mitxelena Jaunaren lkasgaiak «valor normativo» dutela, ez avalor preceptivo». Gu ez gera nor, gai ontan aagintzeko». Euskeraren ajaun-dajabe», erria da, ez gu. Guk ezin dezakegu agindu. Bide bat erakutsi, bai. Bañan guk erakutsitako bide ori erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain, praktikari buruz, zer? urte t'erdiko praktikari buruz, zer?

Nere itzak ez dezala iilor ofendi. Baiñan esan bearra dago. Batasuna egin naiean asi giñan. Nik uste, ez genduala bide ona aukeratu. Ortografia-gaia ukitzean, H'ren auzia ipiñi genduan maigañean. Zoritxarrean. Batasuna lortu bearrean, bitasuna sortu zaigu. Eta nolako bitasuna! bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko experientziak beste gauza bat erc erakutsi du; ez H'ren arraixkutasuna bakarrik, H'ren zail-zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: lenengo, oiñ-arri zabala, batasuna gauza errexa izan dedin; eta bigarren, denbora, denbora luzea. Ponpeo Fabra'ren pazientzia.

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta orra nere iru urte otako deskargoa.

APENDIX GEIGARRI

1) Nere deskargu onen geigarri, entzun ditzagun orain Mitxelena Jaunaren itzak gai ontan. Aiek erakusten digute, nolako egoera neurtuan arkitzen geran Euskaltzaiñok Euskeraren eta Euskalerrriaren aurrean.

Ona itzak: «Batasun osorik egiteko ez du Euskaltzaindiak, ez eskurik, ez indarririk, ez berez, ez besteren bitartez. Gidari eta bide-erakusle agertu nahi luke, orain gauden egoeran egin ditekene neurrian».

Itz oiek neurtzen dituzte ondotxo Euskaltzaindiaren eskubideak Euskeraren gain. Euskaltzaindiak ez du Euskeraren gain *jurisdikziorik*. Euskaltzaindia ez da Euskeraren eta euskaldunen gain, Estadia bere menpekoen gain dana. Ezta Eliza kristauen gain dana ere.

Estaduak ba du jurisdik.io; eta bere legeetara makurtzen ez dana, aitor ta deklaraz lezake «legetikan kanpora», encartado, bandido. Ez Euskaltzaindiak -ezta beste edozein Akademiaek ere- ez dauka olako jurisdikziorik. Euskaltzaindiak -dio Mitxelena'k- bide bat erakutsi, bai, ba lezake. Biderik iñori ezarri, ez. Bidea artu nai duanari gidari izan, bai. Bidea arrerazi, ez. Ori da Mitxelena Jaunaren arauz Euskaltzaindiaren egitekoa. Edo-ta A. Villasante'k esan zuana: Euskaltzaindiaren erabakiak, nor1natiboak dira; ez prezeptiboak. Berak erakutsitako bidean, zer dan zuzena, korrektoa, esan, bai; bidea arre- razi, ez.

Elizak berak ere ba du aginte, Sinismen eta moral-gauzetan. Eta deklaraz lezake herege, Sinismen eta Moral-bidean oker dabillena. Akademi batek ez du olako aginterik izkuntzaren gain. Guk ezin deklaraz dezakegu inor heterodoxo Euskal-gaietan. Euskeraren jaun-dajabe, Erria da; ez beste iñor. Guk Erriari erakutsi dezaikegu; agindu, ez.

Itz bitan, Mitxelena Jaunaren neurrian: Estaduak ba du indar; Elizak ba du esku. Guk ez degu, ez eskurik, ez indarririk, Euskeraren izaera ukitzeko. Bidea erakutsi, bai. Ezarri, ez.

2) Euskaltzaindiaren «neutralidadear buruz», esan lezake norbaitek, nik neronek, urte t'erdi otan H'rik gabe idatziaz, nik neronek autsi dedala neutralidadea.

H'rekin idatzi banu ez al nuan autsiko?

H'rikan gabe idatziaz, nik Euskaltzaindiaren leengo, betiko Ortografiari jarraitu diot; ori bait zan Euskaltzaindiaren leengo Ortografia Bizkairako eta Gipuzkoako. Auzi ontan leengo Ortografiak bere alde du «la ley de la ventaja» esan oi dana; edo-ta jurista zaarrak esaten zutena: in dubio, melior est conditio posidentis = «olakoetan leenean dagonak du ventaja»; edo-ta dialektikoak ziotena: asserentis est probare = zerbait berri esaten duanari dago- kio gauza probatzea, arrazoiak azaltzea. Zaarrean dagonak ez dauka, arra- zoirik eman bearrik.

Nik neutralidadetik autsi gabe idatzi det H'rikan gabe. Ezin idatzi nentza- kean, ordea, H'rekin, neutralidadca autsi gabe. Beraz, edo-ta ezer idatzi gabe cgon bear nuan, edo H'rikan gabe idatzi bear nuan.

Idatzi gabe egotea, ordea, esku-artean gendukan auzlari oker aundi bat egitea zan. Auzi onek, bi alderdien ar-ean ekilibrio bat eskatzen zuan. Arant- zazu'n alderdi bati eman zitzaion -alako giroa zegon- lekuri gela. Beste alderdiari ere eman bear zitzaion bere leku. Gauzaren ekilibrioak ori eskatzen zuan. Mitxelena Jaunaren itzak berak, askorentzat etziran ezagunak, arik-eta orain EUSKERAN azaldu diran arte. Egoera ortan alderdi biai berdin ez laguntzea, zuzenbidearen kontra zan. Orretxegatik jarraitu det nik leengo Ortografian idazten. Ain xuxen, auziaren ekilibrioa eta Euskaltzaindiaren neu- tralidadea zaitzeagatik.

3) Beste gauza, benetan garrantzitsua: zer egin bear da orain Aldizkaria- kin eta Ikastolakin? Gauzak jarri diran bezela, galdera oiei erantzutea, ez da ain gauza erreza; nik beintzat ez daukat ortarako argirik asko. Euskaltzain- diak berak, sakon-sakon aztertu ta estudia bearreko gauza dala derizat.

Batasuna bi gauza oietarako eskatu zan: Aldizkarietarako eta Ikastoleta-

rako. Eta, H dala ta ez dala, batasunak esku-artetik alde-egin digu. Zer egin orain?

Nik gauza bat aurreratu dezaket: leen ere Aldizkarietan bi malla zirala: Idazleena, eta errietako korrespontsalena. Idazleak etzeuden beartuak batasunaren legeetara. Beraz errietako Korrespontsalentzat bakarrik izango ziran Arantzazu'ko legeak. Orain zer egin errietako Korrespontsalakin? Euskaltzaindiak esan dezala. Bear bada, h-kontuan programa minimo bat ezarri?

Ikastolai buruz, beti ere gogoan euki bearreko gauza da, Ikastolak umeen gurasoenak dirala, ez gureak. Eta guztiok dakizute, gurasoen iritzia buruz, Arantzazu ezkeroko urte t'erdi otan, Bizkai-aldetik batez ere, Pedagogi-lege bat aipatu dala: umeak gurasoen izkuntzan eta izkuntza-eran ezi bear dirala (orixe bait da, ain xuxen, Ikastolak sortzeko euskaldunok daukagun eskubi-dearen oiñarri); ez dala bidezko, beraz, umetxoai beren gurasoagandik bestelakoa dan izkuntza-erarik erakusterik. Pedagogi-legea da, lege arrunt-arrunta. Gurasoen iritzia entzun bearra daukagu, beraz.

4) Tarte ortan, beste auzi bat gelditu zaigu: «Arantzazu'n erabaki al zan ezer? —ezer, juridikoki «erabaki» esan litekeanik?».

Gauza au, gutxienez, oso dudakoa da. Auzi ontan, dudarik gabekoa, gauza bat da: an etzala izan botaziorik, euskaltzain jatorren botaziorik.

—Bear al zan? ez al zan bearrik? naikoa al zan, entzule batzuek txaloak jotzea? —Ori, Euskaltzaindiak berak erabaki bear du; euskaltzaindikoak, ez beste inork. Batez ere Mitxelena Jaunaren itzak gogoan arturik: «Euskaltzaindiak ez dezakeala, alegia, ezarri batasunik; ez duala ortarako, «ez eskurik, ez indarrik».

Nolanai dala, erabaki balitz ere, baiñan gero, erabakitakoa Euskerarentzako kaltegarri litzakela ikusi, okerra zuzendu beariko litzake. Euskeraren ona da emen lendabiziko gauza: Salus populi suprema lex, besteak esan zuan bezela: «Erriaren osasuna, erriaren ona da, lege guztietan lenengo lege, lege nagusi». Erabakirik artu izan balitz, ori.

H'rekin zertan gelditu giñan, beraz? Mitxelena Jaunaren arauz, ezarri ez. Zer, orduan? Rekomendatu? ontzat eman? obetzat eman? Nolanai, ezarri ez beintzat. Nai ez duana libre da, ez erabiltzeko Libre dan bezela erabilli nai duana. Ori bai: erabilli nai duanak «ola ta ola» erabilli beariko du: ots! Mitxelena Jaunak erakutsitako legeen azpian.

Nik ola ikusten det gauza; eta iritzi onen barruan jokatu det urte t'erdi otan.

Itz bitan bukatzeko: gure batasunaren auzi onek, perspektiba falta du oraindik. Erriaren plebiszitua. Ponpeo Fabra'k Kataluña'ko erriari opa zion epea, plazoa: amar urteko plazoa.

Orra esan nere iritzia.

Manuel Lekuona

ARA^s TZAZU' KO BATZAnin (KRITIKA)

Arantzazu'ko Batzarra askok eta askok aipatzen du. Arantzazu'ko Batzarra eta Arantzazu'ko erabakiak...

Zer izan zan Arantzazu'ko Batzar ura? zer indar du?

Batzuek bat dicte, eta besteak bestea. Gai ontan gauza bat dago argi ta garbi: Arantzazu'n etzala izan botaziorik.

Orain nere galdera: —Bear al zan? ez al zan bearrik? H'ren auziari dagokionez batez ere?

H'ren auziari dagokionez, ba dirudi, an esan ziran gauzak oso gauza astunak izan zirala, eta olakoetan guztiok dakigu botazio on bat bear izaten dana.

Berreun urte egiñak dira, A. Kardaberatz'ek, bere «Euskeraren berri onak» deritzan liburuan, eta arekin batean baita bizkaierazko ta gipuzkoerazko idazle danok ere, H guztiak Euskeratik aienatu zituztena.

Eta, ain xuxen, Arantzazu'ko urtean bete ziran berrogeitamar urte, Euskaltzaindia sortu zana, ta berealaxe, lan luze ta sakonen ondoren, bere Alfabetoan, H'ri oxta-oxta leku eman bai, bañan letra orren praktika Bidasoaz beste aldekoentzat libre utzirik, praktika ori Bizkai ta Gipuzkoa'rako beintzat zearo bazartu zuala.

Ortaz gañera H'ren praktika eta teoria bera ere bai, naiz gipuzkoerazko, naiz bizkaierazko Gramatika guztietan zearo kendua arkitzen genduan.

Bidasoaz beste aldekoak ere gero ta gutxiago erabiltzen ari bait dira...

Orain, beraz, nere galdera: iru eguneko lekzio ta teoriarik jakintsuenak naikoak al ziran, egoera sakon au, botazio gabe, zearo aldatzeko, eta H'ri orrenbeste urtean izan ez duan lekurik, iru egunen buruan emateko?

Ori da nere lenengo galdera: Bear al zan botaziorik? ala etzan bearrik?

Euskaltzaindiari berari dagokio galdera oni erantzutea.

Bañan, norbaitek esan bait lezake, botaziorik izan etzan arren, izan zitekeala botazio baten berdin dan zerbait; erderaz «por aclamación» esan oi dan zerbait; plebiscito ta referendum esan oi dan zerbait, alegia...

Plebiscito oiek gauza arrixkutsuak izan oi dira. Nolanai dala, norbaitzuek beren gain karga bat artu bcar dutenean, ez daude ain gaizki, bañan karga basten ezarri bear zaionean, plebiscittoa baño joku garbiagoa eskatzen du giza-lege jatorrak.

Ori, gauzaren muñari dagokionez.

Plebiscitoaren formari dagokionez, barniz, ba dakigu zenbait plebiscito, «multitudinario» ere izan ditekela, ots, naasia.

Arantzazu'ko Batzarrean, euskal-idazle guztioi ipiñi bear zitzaien Ortografia bat, ez batzarkideai bakarrik; batzarkideai eta batzarrean etziran guztiai... Ori ezin izan diteke plebiscito-gai.

Formad dagokionez, berriz, nik neronek ikusiaz gañera, ortik zear nabillera, ithez jaso ditudan inpresioak esango ditut.

1) Batzarrak, entzuleen aldetik, Akademiagintza bat baño, mitin bat areago zirudiala; batzuren batzuek esaten bait dute, baita, norbaitzuek Euskaltzaindiari prestatutako encerrona bat izan zala ere.

2) H'ren kontra mintzatu ziran bi edo iru Euskaltzain, forma ez oso kortesean, ixillera ere egin zirala. Aietako batentzat latigilloak eta txisteak ere izan zirala, eta biontzat baita farra ta burla ez oso akademikoak ere.

3) Gure Lendakari Jauna bera, H-zaleak baztatu egin zutela, berak nai bezain H-zale bero arkitu etzutelako noski.

4) Itz bitan: irregularidade geitxo joan zala Batzar aietan; etzirala ur garbi izan, alderatzeko ere. Eta etzala arritzeko gauza, alako mitin-giroan, asko ta asko, mintzatuko zirakenak, ixillik egon naiago izan izatea, gero beren asarea nolabait erakusteko asmoz.

Olako Batzar bat, nekez esan bait dileke, formaz, *plebiscito* jator danik.

Batzarraren bukaeran irakurri zitzaigun notaz beraz ere ba dago zer-esanik. Etzan izan nota-argia; naasitxo baizik.

Batzurentzako, Nota ura Batzarraren «erabakia», izan zan. Notak berak ez dio ori; «aur'erapen bat» dala dio baizik; aurrerapen bat, berriz, e7. da «erabaki» bat.


Nota artan ez da ezer «agintzen»; kontsejatu baizik, rekomendatu. Kontsejoak, berriz, ez du iñor «beartzen»; kontsejoak ez du santziorik, libre uzten du, bakoitzak derizkiona egiteko.

H'ri buruz ematen dituan arauak ez dira argiak. H bi bokalen erdian kontsejatzan du. Zer bi bokal, ordea? berdiñak bakarrik, ala desberdiñak ere bai? («Euskaldun» itzean, adibidez, E ta u'ren artean, bear al da H'rik?). Nola jakin bear degu zein bokalen erdian bear duan, eta zeinetan ez? ..

Gauza au jakiteko, gero Iztegi bat argitaldu dala? Argitaldu dala, inpersonal da. Zeñek osotu du Iztegi ori? Ortikan zear diotenez, ortan ere Izan zan oso garbi ez dagon zerbait. Bidasoaz beste aldeko H-zale batek bere gain artu zuala, edo emengoak egotzi ziotela lan ori egiteko arazoa; bañan gero etzala ausartu olako lan zalla egiten. Azkenik, ez bait dakigu zeñek egiña dan, eskurik-esku dabillen H'dun-Iztegi-saio ori. Nolanai dala, Euskaltzaindian ia iñork ez daki gauza au nola garbitu dan. Euskaltzaindiak ez det uste eman dion bere baietzik. Gauza presakaegi egin zan, bear dan garantiarikan gabe.

Beraz, berriz ere gauza bera: ez dala guzti ortan plebiscito jator baten formarik. Ez formarik, ez gairik.

Manuel Lekuona



BATASUNA ETA H, ETA ARANTZAZUKO BATZARRA

Euskaltzaiñak:

Naiago nuan nik, gai au puska batean ez ikutu. (Gure beste lagun batzuek ere iritzi ortako agertu zaizkit egun oietan). Bañan orain arte, ixillik egon geran arren, alde batetik eta bestetik, itz-egitera beartzen gaituzten ezkerro, itz-egitera nijoia: zentzu onezko pentsakizun batzuek guztioi agertzera.

Batzuren batzuek uste zuten nunbait, gai au Arantzazu'ko Batzarrean bukatu genduala. Gai aunditxoia zan, ordea, Batasunaren eta H'ren gai au, ola, iru eguneko Batzar bero batean erabakitzeke. Batasuna egiteko oñarriak —oiñ-arri batzuek— ipiñi, bai; bidea ebaki-edo, bai; Batasunaren teoria argitu, bai. Bañan, Batasunak zain aunditxoak ditu, ola, Batzar bakar batzuetan egin egiteko. Batasuna egiten, orain ari gera. Batzuen eta besteen iritziak entzunaz. Egiten ari; bukatu, ez.

Egiten ari geralarik, ordea, praktikak erakutsi digun gauza bat, auxe da: h'k Batasuna desegin egin digula; Batasun sikologikoa urratu. H'k Batasuna ez, baño bitasuna ekarri digu. Bitasun sikologikoa, bitasun praktikoa. Eta baita bitasun teorikoa ere.

H'k Batasun berri baten teoria ekarri digu. Leen Euskal tzaindiak ba zuan bere Batasun. Orain h-zaleak beste Batasun berri bat ekarri digute. «Batasun zaarra eta Batasun berria»: bi Batasun. Bitasuna.

— H, Batasunaren etsai, beraz?

— Bai, alatsu.

Orain galdera bat: — Zer da bearrena: h, ala Batasuna? Batasuna bearrekoago ba degu, zuek ikusi, h'rekin zer egin bear degun.

ARANTZAZU'KO BATZARRA.— Zer indar, zer balore zuan Arantzazu'ko Batzarrak? Ondo ikusi bearra, ondo aztertu bearra dago. Batzuek eta besteak, «Arantzazu'ko Batzarra» bait darabilte aotan.

—Zer indar zuan? indar beartzallea, indar koertzitiboa? ala indar normatiboa, arau-indarra? Indar praktikoa? ala indar teorikoa? aginte-indarra? ala argi-indarra?

Mitxelena Jaunak berak, gauza au naiko argi utzi zuan: bere Lekzio ikasgai argi ederrean, garbi esan zigun: «Euskaltzaindiak ezin beartu lezake iñor». Bi aldiz esan zigun. Ikasgaien asieran, eta ikasgaien bukaeran: *Euskaltzaindiak ezin beartu lezake iñor*, berak ipiñitako Batasunaren oiñarri teoriko aiek praktikan ipintzera.

Izan ere, Mitxelena Jaunak ondo zekian, Euskaltzaindia ez dala Euskerraren «jaun ta jabe», Euskerari olako edo alako izaera bat ezartzeko; Euskerraren jaun eta jabe Euskalerria da, Euskalerria bera. Euskaltzaindiak euskaldunai bide bat erakutsi, bai; bide bat argitu, bai; bide bat ebaki, teoriar, bai; bide bat ebaki, nai duanak edo derizkionak jarraitu dezan; bañan bide ortatik ibiltzera iñor beartu, ez. Euskaltzaindiaren erakutsiak —Mitxelena Jaunaren erakutsaldiak— indar normatibo izan dezakete; bañan indar beartzallerik, ez. Ortarako Euskeraren jaun ta jabe izan bearko luke.

Beste itz batzuetan ere, gauza au esan eta argitu diteke.

Arantzazu'ko Batzarra, etzan izan, Eliz-Batzarrak izan oi diran bezela, *Batzar dogmatizante*. Elizak ba du, Sinismenaren iturrien jabetasun zerbait; eta jabetasun orren indarrez, Elizak beartu litzazke eliztarrak, Berak erabakitako dogma bat sinisteraztera, eta sinisten ez duana *herege* aitortzera.

Bañan, dogmaz gañera, Elizaren erakutsietan, Elizar Doktriñan ba dira gauza batzuek, Elizak berak erabaki gabe, Elizako Erakusleak, Teologoak erakusten dituztenak: Doctrina Ecclesiae-edo esan oi diranak.

Ez da gauza berdin-berdiña bañan, ba du zerbait antz. Euskaltzaindiak ez du dogmatizatzen, ezin dogmatizatu lezake, Euskeraren izaerari dagokion gauzarik —Batasuna adibidez, edo Batasunari dagozkion bideak—; ezin dezake dogmatizatu, ezta bere oiñarriak onartzen ez duanik kondenatu ere. Euskaltzaindiaren erakutsiak beti ere ori izango dira: erakutsiak, erakutsi teorikoak, praktikan —Mitxelena Jaunak esan zuan bezela— nai duanak jarraitu litzazkeanak, bañan nai ez badu, ez, obeto esateko, ez baderizkio, ez. Ori bai: Euskaltzaindiaren itzal onagatik, arrazoi-bide astunak bearko dirala aren erakutsiak ez jarraitzeko; bañan izan bait liteke olako arrazoi-biderik ere... Arrazoi-bide teorikoak eta arrazoi-bide praktikokoak.

Arrazoi-bide praktikokoak, ba dakizute, gero praktikan azaltzen dira. Orregatik gauza oiek ondo eramateko, denbora bear da, eta gure gai

ontan, Erriak h'ri egin lezaioken arrera, jendearen reakzioak, alegia ikusi bear dira.

Eta teoriari berari gagozkiola ere, ba dakizute, garrantzi aundi samarreko gai baten teoria ere, erakusaldi bakar batzuetan dana ezin bildu ditekela. H'ren teorian bertan, Mitxelena Jaunaren Arantzazu'ko erakuts-aldietan, zenbait punto gelditu zitzaigun, bear bezela aztertu gabe: adibidez h'ren Historia—h'ren Gramatika Historiko Comparada'ren azterketa on bat, alegia—; ots, «H Gipuzkoan eta Bizkaian nola izan zan, zer neurritan; eta noiz ta nola galdu zan» etab.

Guzti ori ondo aztertu gabe, ezin esan bait liteke gure oifiarri teorikoak berak ondo ezarriak dauzkagunik.

Puntu ontan dago, beraz, h'ren auzia Euskaltzaindiarentzat. Konpas ixil batean. Praktikan, Erriaren reakzioen zai; eta teorian, h'ren Gramatika Historiko-comparada baten bearrean.

Orra esan, esan bear nuana. Batasunari buruz zentzu onezko pentsakizun batzuek.

Manuel Lekuona



EUSKALTZAINDIA'RI, BIOTZ-BIOTZEZ

Idazte-arazoak erabakitzeke Euskaltzaindia'k darabizkian jokabideak naiko okerrak dirala uste dut. Orain eskuratu zaidan "Euskaltzaindiaren adirazpena euskera batuaz" (1) orriak onako au dio: "Literatur ondarea bere osoan hartzen du kontuan Euskaltzaindiak batasunerako jnongo euskalkirik baztertu gabe".
(2)

Gure Literatur-ondarea nolakoa dan badakigu: apaiz-euskerazkoa. Gure sinispena bizkortzeko asmoz apaiz eta praille asko erderazko liburuak euskeratzen sayatu izan dira; eta itzulpen geyenek itzulpen-usaya, ta askotan itzulpen-kiratsa botatzen dute. Orain berriz' idazle asko euskaldun berriak dira, euskera liburu-bidez ikasi dudenak, "Literatur-ondareaz" baliatu diranak; leengo latin-prantzes-gaztelani-usayaz gain' orain gaztelani-usai aundiagoa erantsi diode, beren leenengo izkuntza gaztelania izan baita. Ikasi dugun geyena, askok guztia' gaztelaniz ikasi dugunok beti gaztelani-kiratsa botatzeko bildurrez idatzi bear genuke.

Euskera ezta zenbait apaiz eta praillek idatzi zuden izkuntza. Euskera jatorra euskeraz besterik etzekideneke mintzatzen zudena zan. Zoritzarrez orain olakoak oso zaarren batzu besterik eztira. Etxean euskera besterik ikasi eztuden batzueri onelakoak entzun dizkiet: Etxerako abiatu bearke det, porke berandutu egin zait. Leen guztiok "berandutu egin baitzait" esaten genuan.

Karlisten bigarren gerratean "milicias nacionales" zeritzanak baziran, gero Falange izan zan bezelakotsuak. Usurbill'en "nazinal" oyen buru Artzelus izenekoa zan. Bein lagun batekin zoala soldadu batek oyu egin zieden: "¡Alto: ¿Quién vive?". Artzelus'ek: "Artzelus, nazionales de kepe". Orduan soldaduak: "Pasen". Eta Artzelus'ek bere lagunari: "Eskerrak erderaz badakigula, bestela toki onian giñuun". Artzelus'ek euskerazko joskeraz erantzun zuan: Nazionalen buruzagia nazional de kepe. Orain orrelako gaztelanirik inork ere eztu egiten; orrelako makurrak euskeraz idazten eta mintzatzen geranean egiten ditugu. Ona ale batzu:

Gipuzkoa-Donosti--Kutxa'n: Erabilpena ezinezko terminala (leyatilla itxi) Irun hiria literatur sariak 1993:

Poesía en euskera: extensión mínima 800 versos; Euskerazko olerkia: gutxienez 800 bertsoetako hedadura.

Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Literatur sariak 1993: Euskarazko Olerkien FELIPE ARRESE Y BEITIA Saria:

5. Lan originalok, tarte birekin eta alderdi batetik mekanografiaturik, 750 bertsoetako luzera eduki beharko dute gutxienez.

Onekin batean nere "Euskerazko bertsokerak" idazkitxoaren lenengo aye-ka. Gaiñera gaztelanizko **tener** prantzesezko **avoir** bezela itzuli bearrean **eduki** itzaz itzultzen dugu; "¿noiz arte?" galdetzeko gogoia ematen du. Euskeraz "¿Bolalumarik ba aldezu? galdetzen dionari' maiz onako au erantzun bearr eduten diogu: "Bi ere baditut, baiña emen bat ere eztaukat".

Irun'go sariketarako deyak diona: 800 bertsoetako hedapena. Euskeraz bi atetako etxea, bi ankatako aberea eztira esaten, baizik eta bi ateko etxea, bi ankako aberea, iru ankeko maya, lau ankeko aulkia.


Beste au ere Irun hiria sari-deyan: Las obras deberán contener solamente el título y un lema. Obrak izenburua eta goiburu bat eramango dituzte bakarrik. Emen **contener** ordez **llevar** itzuli dute. Bereala gogora onako au dator: ¿Nora eramán (**eroan**) bear ditude? eta GOIBURU zer da? Auñamendi iztegiak dionez' Barro de Andoain. Caserío de Zumaya. Caserío de Aya. Caserío de Idiazabal. Apellidos en Zumaya y en Oikina (Zarautz). Dic. Retana de Autoridades: GOIBURU: lema: Areitz ganian dogu/Gurutza/Deuna/Beti geure goiburu. (Goiko buru edo nagusi, nere ustez) Euzko Abendaren Ereserkiya. II. Desván, camarote. III. Techo. Azkue, Dic. Apéndice 538. IV. ¿Cielo, firmamento?

(1) Au gaztelaniz bezela josia da: explicación de la Academia acerca del euskera unificado. Obeki josirik: Euskera batuari buruz Euskaltzaindiaren adierazpena.

(2) Obeki josirik: Euskaltzaindia'k batasuna egiteko' idazki-ondarea bere osoan, iñongo euslakirik baztertzeke' kontuan artzen du.

Onekin batera' Larrazketa Apaiz zuberotarrak "apaiz-euskera"ri buruz idatzizuan zerbait.

Zatarain'dar A.



EUSKALTZAINDIA'RI, "BATUA"RI BURUZ

Mitxelena zanari bein baiño geyagotan entzun geniona: euskerak koine baten bearra duala. Alexandros'en denboran elenera izkelki mordoska batean zatitua zan, eta guztientzako elenera batu bat sortu zuden, orain batzuk koine esaten diodena, eta beste batzuk Testamentu Berriko elenera.

Ellas'ek askatasuna lortu zuanean' erriak demotiki esaten zayona mintzatzan zuan. Lardaskatu samarra zala'ta katharevousa edo txukundua sortu zuden eta legezko izkuntza biurtu. Baiña ori agintariek eta eliz-gizonek bakarrik mintzatzan zuden. Azkenik erri-izkuntza, demotiki zeritzana legezko izkuntza biurtu da (1976).

Luxembourg'en leen izkuntza "ofiziala" prantzesa bakarrik zan. Pamelietan **lezeburgesch** mintzatzan zuden, eta eskoletan ikasketak egiteko alemanez aritzen ziran. Oraintsu lezeburgesch ori ere eskoletan aurreri irakasten zaye.

Iparr-Euslaerrian ere navarro-labourdin unifié dalako koine bat sortu zuden, eta Euskalduna astekariaren bidez zabaldu ere bai. Idazle guztiak edo geyenak ere pozik artu dude. Eta Ego-Euskalerrian ere koine bat bear dugula, ta ango idazle guztiek eta emengo geyenek ere napar-lapurtarr orren oso antzeko zerbait emen sartu nayez ari dira. Baiña 40.000 euskaldunentzat egoki gertatu ornen dana, beste 560.000 euskaldunontzat egoki gertatzea eziñekoa da.

Gogoratu Bonaparte'k ziona: "J'admets très volontiers que les quatre dialectes littéraires sient beaucoup plus importantes que les trois autres, et que parmi les premiers, il y en ait deux, le guipuscoan et le labourdin, que l'on doit a juste titre regarder comme les représentants legitimes du Basque: le premier en Espagne, et le second en France. S'il s'agissait de savoir lequel de ces dux dialectes dit étre scientifiquement considéré comme le représentant du Basque, sans prendre en considération la France ou l'Espagne, mais du Basque dans son ensemble, je crois pouvoir prouver a la satisfaction des linguistes d l'Europe, que ce droit appartient au guipuzcoan".

Iparr-euskerazko koine dalakoa ñ, II eta bakarti-arteko y'rik gabekoa da. Izan ere'ñ orde z prantzesaren gn euskeraz nola erabili? Axularra'ek ñ erabili

zuan, españerreri ikasita; Oihenarte'k sartu nai edun zuan, baiña irartzerakoan la ttantto guztiak galdu egin ziran. Alaz guztiz ere Philitea ta Goietxe'ren Fa-bleak ñ'z josiak dira. Berdin diñ larogeiren bat urte argitaratutako Maitena opera ere.

Beste arazoa H'rena dugu. Euskaltzaindia'k 360 inguru itz H'rekin idatzi bear dirala erabaki zuan; Lhande'ran iztegian ia danak H'rik gabe ere agertzen dira. Okerr ezpanago' H'rik gabe agertzen eztan bakarra hartu da Sekulan H'rik entzun eztuden aurreri 360 H'dun itz buruz ikastaraztea baiño askoz errezago litzake H'rekeiñ oiturik diran aurreri beiñ ere H'rik ez idazteko araua ikastaraztea. Izan ere' Euskaltzaindia'k berberak ere alkarti-ondorengo H guz-tiekin orixe egin du: kh. lh, th bezelako guztietan H kendu.

Beste arazo batean Iparraldekoek bezela egitea egoki genuke: edun (edu-kan, ukan) aditzean dut, dek/den, du, degu, dezu, dude ordez bizkayerazko (daut) dot, (dauku, daun) dok/don, dau, (daugu) dogu, (dauzu) dozu, (daude) dabe, bezeletsu dut, duk/dun, du dugu, duzu, dude erabilli.

Bizkayeratik beste zerbait ere artu genezake: gizon au, gizon oi, gizon a (ille horno, gizona) eta gizon ura edo hura zearo baztertu.

Orain Pello ordez gaztelarrik geyenek bezela peyo (Peddo) esaten asi zaiz-kigu. Baiña Oyartzun. Aya, Zumaya erdaldunek bezela ez idaztearren, y ordez i idazten asi zaizkigu: Oiartzun, Aia, Zumaia idatzi, ta orrela erdaldunek bezela esatera bultzatzen gaitu.

Orren antzeko beste bat ere badugu: mahaia. Okerr ezpanago' orren jatorria onako au da: mai gaiñean maigañean magaiñean mahaiñean. Baiña iparr-euskalkiz ere maipetik txistu jo esaten da, bera mai bat, maya dira.

Zatarain'dar A.

EUÑTALAKOAK entzun ondoren:

— AYEK AITTUBEARRAK...

Amak agindutako zerbait, aurrak ekarri ondoren:

— TXOTXA BAÑO UMEA OBE.

Ñeska-mutillak etxean, gurasorik gabe gelditutakoan:

— ZEIN BADA ERE... aterik ez iriki.

GOAZEMAZU nerekin.

— GAU-BERAÑDUAN sartu zan.

Gaxo dagon baterik nola dagon galdetu eta ALA OLA dagola erantzun ondoren:

— BESTELA, lo ondo egin al dezu?

— Bai! Lo ondo egin det.

— Puska ttiki au BAIK ERE emal dazu.

— Eskeintza ori batzuentzat, GEITXO DA ta besteentzat GUTXITXO.

Kalean AURREZ-AURRE aurkitu arrern, burura makurtu ta EZ-IKUSIA egi-
ñaz, aurrera jarraitu zuan.

— Guztia EZ-USTEAN gertatu zan. ***

— Etxean SARTU ORDUKO, ama lanean asten da.

— Ba-dakigu DIRUTAN ZAUDELA. ***

— Ateri dago, NOSKI, Ez?

— Ez nekin sendag;llea ZIÑANIK. ***

— Au ere egin bear al det?

— JAKIÑA-BA... ***

Oso nekatua zegon batengatik:

— Zutik ezin egon zen (no se podía tener de pie) orde.

— Zutik egoteko ere GAUZA EZ ZAN. ***

(Eguraldi ona zalakoan, eudiya ikusitakoan):

— Eudiya DA-TA! ***

Senarra zer moduz, Maria?

— Gaizki! BURUTIK NASTEN ERE AŞI ZAIGU-TA... ***

— Orrek, gauza danak, AOTIK SUDURRERA BEAR IZATEN ditu. ***

— NOIZIK BEINKA. ***

— NEKA-NEKA LERTZEN ZAÑEAN... ***

GUZI-GUZIAREN errua nerea da. ***

— ALA FEDE, biarko eguna ez dedilla pasa au egin gabe. ***

— LURRA-LUR URRUTIRA ERE, ez da ori baño ausartagorik. ***

— ITSU-ITSUAN SINISTU ZUTEN.